



uk

149. zenbakia / 2008 abenduak 19

# BADATOR OLENTZERO!



**Gabonetako Kantaldia**  
Abenduaren 22an, 20:00 Satistegi kafetegian.

**Potxin eta Patxin** pailazoak  
"Egipton Gertatuak"  
Abenduaren 22an, 19:00. Arestako Eskoletako plaza.

**Kuko, Truko eta Bolenwaider** pailazoak  
Abenduaren 23an, 18:00. San Nikolas plazan.

**Erromeria**  
Luhartz Taldearekin  
Abenduaren 23an, 20:00. San Nikolas plazan.

**Getxo**  
Euzkadi Bizia

Antolatzaileak  
Horra Horra Algortako Olentzero Batzordea, Berantzagi dantza taldea, Itxas Argia dantza taldea, Zasi Eskola dantza taldea, Ziletu Bizian, Romoko Jai Batzordea

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Getxoko Komiki eta Manga Azoka.
7. LEHEN ETA ORAIN. Gorizko Foru Abeletxea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jose Luis Lopez, Algortako gaztaina-saltzailea.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. UK Aldizkari X. urteurren ekitaldia.
28. ARGAZKIA. Villamonte baserria.
30. BERBETAN. Onintza Enbeita eta Iratxe Ibarra.
34. FOTOGRAFIA. Eduardo Camino.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Sukaldeko Kontuak, Aizpea Goenaga.
43. MUSIKA. Lluvia, Hierro y Roc&Roll, Alvaro Heras. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Igelaren itzulpenak. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Euskal Herriko Selektzioaren aldeko ekimena Uribe Kostan.
46. ELKARRIZKETA. Willy Uribe.

### AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Sarrikobaso Itxaskiak.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako Bihotz-Alai 1953, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Joseba Olagarai, Maitane Nerekan.

Azala: Eduardo Camino



30 Onintza Enbeita eta Iratxe Ibarra



11 Jose Luis Lopez

### Berbetan

Bizkaiko Bertsolari txapelketako emakume finalistak. Gainontzeko sei tregoirik emateko asmorik ez. Finalaren aurreko iragarpenak bete ote dira?



46 Willy Uribe



34 Eduardo Camino



13 Jon Urza, aktorea



54 Joseba Olagarai

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

**www.seminuevosengetxo.com**

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/s - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERRREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan,  
Zuberoa Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Mentraka

TESTUEN ORRAZKETA: Zioztza Vega

KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola,  
Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara  
Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko  
herri aldizkari eta euskara elkarten  
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



# gugeu

## Denborak esango du

Denbora aurrera doa konturatu barik. “Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea”. Atzo XX. mendeari agur esaten genion, mundua alderantzizko Big-Bang batean desagertuko zen beldur, eta gaur 2009. urteari kaixo esaten diogu, gure telebista zaharrak kate digital barriak ikusteko aukera emango ez digun beldur. “Bitarte mugagabe” horretan “izakiak aldatu eta gauzak gertatu” dira. Asko gainera. Gura izan dugunean ere, ezin izan dugu denborak agintzen zuenetik ihes egin, bera baita munduko agintaririk boteretsuena.

UKko errepublikan ere denborak agintzen du. Hamabost egun ale bakoitza egiteko, 10 urte 150. alea kaleratzeko, 4 egun aldizkaria banatzeko... denborak neurtzen du gure egitekoa. Eta denborak eroan gaitu 10 urte betetzera; gure lagun (eta etsai) eta kolaboratzaileakaz, publizitate bezeroakaz, diruz laguntzen gaituztenakaz, irakurleakaz, albisteetako protagonistakaz... zuoi guztioi, eskerrik asko. Eta bide batez, urte barri on!

UKko lantaldea

izan zen > Kontseiluaren X. urteurren ekitaldia: Euskarari Bai!



Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak BECen egin zuen abenduaren 13an X. urteurren ekitaldia. Milaka lagunek bat egin zuen “euskaraz bai” leloagaz. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak azaldu zuenez, pauso bat harago joateko garaia heldu da, eta bide horretan lehen urratsa eman zen BECeko ekitaldian. Euskararen oreka hauskorra modu artistikoan irudikatu zuten. Ikuskizunean, besteak beste, ekilibristek, Xabi Paya bertsolariak, Kirmen Uribe idazleak, eta Elena Irureta aktoreak parte hartu zuten.

uk

gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria


[irudia]



GETXOKO VII. KOMIKI ETA MANGA AZOKA, 2008KO ABENDUAREN 2A

**Ederra bezain beldurgarria /** Horrelakoa da goiko irudia: ederra bezain beldurgarria. Getxoko VII. Komiki eta Manga Azokako stand batean aurkitu genuen. Dirudienez, neskatoaren begirada sarkorra, ikusle askoren gustukoa izan zen. Odolez betetako pertsonaia “makabroak” komikiaren protagonistak dira maiz. Auskalo zer nolako izaera eman dioten goiko neskari; agian, hegaltxo txikiak ditu atzean ezkutatuta, eta gaiztakeriak egiten ibiltzen den “ainguru” boteretsua da. Edo, beharbada, begiradagaz ingurukoak seduzitzen dituen emakume gaiztoaren rolla eman diote. Baliteke, Institutuan ikasten duen 16 urteko neska arrunta ere izatea. Itxurak engainatu egiten gaitu gehienetan; haratago joatea komeni da. ○ / Argazkia: **Asier Mentraka**

# LEIOA



## ZABALDU EUSKARARI

*Zorionak eta urte barri on!*



Leioa  
UDALA-AYUNTAMIENTO  
Euskara Zerbitzua



[lehen]



[orain]

**Iraganez doa denbora\* beti / GORLIZKO FORU ABELETXEA**

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; Altzairuzko zuhaitza



2008ko azaroa, Uribe Kosta

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Txoriek, nahiz ibili  
batetik bestera  
Duracelleko untxi  
arrosen antzera  
eta energia izan  
barruan sobera,  
gelditu behar dute  
pilak kargatzera

Altzairuzko hezurren  
talaia garaiak  
bizi du besteen eran  
arbol izan nahiak.  
Aldiz, ezin da izan,  
ez ditu lehengaiak...  
nahiz eta ongari faltan  
ez dauden sustraiak!?

Altzairuzko zuhaitza  
ez ote da berez,  
nahiz eta urtaroak  
ondo kunplitu ez?  
Udazkena jantzita  
lumazko orbelez  
eta negu aurretik  
fruituak emanez.

\* Doinua: Euskaldun bat zen itsu

## izarren hautsa &gt; abestia guztion eskura ipini du Elkar argitaletxeak



www.elkarargitaletxea.com/mikel\_laboa web gunetik deskarga daiteke abestia

**Joan zaigu** Mikel Laboa (Donostia, 1934-2008).  
Joan zaigu euskal musikagintzako enbor emankor  
eta sendoenetakoa. Joan zaigu, baina bere uzta utzi  
digu, gozaten jarrai dezagun. Emazteak, seme-  
alabek eta lagun minek azken agurra eman zioten  
Lesakako Agiña mendian (Nafarroa). Han eta  
hemen omenaldiak jaso ditu eta jasoko ditu.  
Abenduaren 23an Gipuzkoako Urrezko Domina  
emango diote, hil osteko errekonozimendu gisa.  
Uribe Kostan, kontzertu-omenaldi xumea eskaini  
zioten Algortako zenbait gaztek. Elkar Musika  
argitaletxeak, Euskal Herri osoak erakutsi duen  
samurtasuna eta gozotasuna eskertu gura izan du  
“Izarren hautsa” kantua doan deskargatzeko  
www.elkarargitaletxea.com/mikel\_laboa web  
guneagaz. “Gu sortu ginen enbor beretik sortuko  
dira besteak, burruka hortan irauango duten zuhaitz  
ardaska gazteak”. ○

## gorliz &gt; Sahararen aldeko V. elkartasun karabanarako janari bilketa



Tindufeko lagunentzat izango dira bildutako jaki eta konpresak

**Elkartasun** ekimen ugari jarri ohi dira martxan  
Gabonak heltzen direnean. Horietako bat da  
*Sahararen aldeko elkartasun karabana*, piztu  
*itxaropena* izenean, Euskal Herriko Sahararen  
aldeko hainbat elkarteek antolatzen dutena.  
Gorlizko Udala, Saharako La Güera herriagaz  
senidetu zen 2001ean eta, ordutik, sahararrei  
laguntzeko hainbat ekimenetan hartu du parte.  
Izan ere, hango herritarrak bidegabeko erbestean  
bizi dira azken 30 urteotan, Argeliako Saharako  
basamortuan. Elkartasun karabanak, Tindufeko  
kanpamentuko lagunentzako jakiak (azukrea,  
atuna, sardinak oliotan, arrosa, pasta eta lekale  
lehorrak) eta konpresak batzea du helburu.  
Gorlizko Kultur Etxean eta Udal Bulegoetan utzi  
ahal izango dira urtarilaren 23a arte. ○



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676

sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37







..haria      ...leheng garaiak...      ...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

## Gabonak > Olentzero menditik kostara partera hurbiltzen denerako



Olentzero eta Erregeen kalejirez gain, hainbat ekitaldi antolatu dituzte etxeko txikientzat Gabonetako oporretarako.

**Barriz ere** buru handia sorbalda gainean duela entendimentuz jantzia dator aurten ere Olentzero tripa handia. Euskal Herriko mendiak atzean utzi eta Uribe Kostarako bidea hartu du dagoeneko. Bere ikatzagaz, berotasuna ekarri ohi zuen gure etxeetara; baina, azken urteotan, etxe gehienetan berogailu zentrala ipini dutenetik eta kontsumo sukarrak gaixotu gaituenetik, zakua Ternua polarrez eta Wii kontsolarako jokoez betetzen du. Opari mordoan kargak bizkarrean min egin ez diezaion, aste bi beranduago, Ekialdeko Erregeak hurbiltzen dira. Horiek errazago dute karga garraiatzeko; hiru lagun dira eta gamelu gainean datoz. Gure artean badaude Olentzeroren aldekoak eta Erregeen aldekoak. Badaude, bien eskuzabaltasunari etekina ateratzen diotenak ere. Guk, gurago dugu auzi hori alde batera utzi eta eskualdean Gabonetako jaiak aitzakiatzat hartuta antolatzen diren ekitaldien barri eman. 24 eta 5eko kalejirez gain, tailerrak, txokolate jana, postal erakusketak eta beste hainbat ekintza antolatu dituzte aurten. Urduliztarrek, Mungiako Olentzeroren etxera egingo dute txangoa. Sopelan urte barriaren etorrera auzokideakaz ospatzeko aukera egongo da, Kultura Hanean egingo duten jaitxoan. Bakoitzak gura duena aukera dezala jaiak are zoriontsuago egiteko. Eta, arrazoi bategatik edo besteagatik, Gabonak ospatzeko ohiturarik ez dutenentzat ere, mila muxu eta zorion. Ondo pasa, gutxi gasta eta bueltak UKri! o

### Ekitaldiak

#### URDULIZ

- **Olentzeroren etxera txangoa:** Abenduaren 30ean.
- **Gabon postalen erakusketa:** Abenduaren 22tik 31ra, Kultur Etxean.
- **Olentzeroren etorrera:** Abenduaren 24an, 18:00etan.

#### GORLIZ

- **Gabonetako Ludoteka:** Abenduaren 23an, goiz eta arratsalde, Kultur Etxean.
- **Olentzeroren etorrera:** 17:30ean, herriko kaleetan zehar.

#### GETXO

- **Getxolandia:** Abenduaren 20tik urtarrilaren 5era, goizez eta arratsalde, Santa Eugenia eta Geltokiko plazetan.

#### SOPELANA

- **Gabonetako parkea:** Abenduaren 27, 28 eta 29an, goiz eta arratsalde, Pilotalekuan.
- **Olentzerori harrera:** Abenduaren 24an, 17:00etatik aurrera, Urgitxieta plazatik.
- **Urte Barri Jaia:** Urtarrilaren 1ean, 13:00etan, Kultura Hanean.
- **Errege Magoei harrera:** Urtarrilaren 5ean, 18:00etan Urgitxieta.

#### PLENTZIA

- **Olentzeroren kalejira eta antzezpena:** Abenduaren 24an, 17:00etan, zubitik.

#### LEIOA

- **Gaztainak doan:** Abenduaren 23an, 18:00etan, Euskal Etxeen plazan.

#### BERANGO

- **Olentzeroren kalejira:** Abenduaren 24an, 18:30ean, Berangoetatik.
- **Erregeen kabalgata eta DJ emanaldia:** Urtarrilaren 5ean, 19:30ean, Berangoetatik.



“Ez dut ezagutzen gaztainak gustuko ez dituen umerik”

## Jose Luis Lopez Moure > Algortako gaztaina-saltzailea

“**Gaztainak erre artian**”. Horrela ematen ditu neguko arrastiak Jose Luis Lopez Mourek, Algortako Telletxe kaleko gaztaina-saltzaileak. Urtean hiru hilabetez (urria erdialdean hasi eta urtarrila erdialdera arte gutxi gorabehera), 18 orduko lanaldiak izaten ditu; izan ere, profesioz, garraiolaria da, nahiz eta negu partean gaztainak saltzen ibiltzen den: “Goizeko 4:30ean esnatzen naiz eta furgonetagaz amaitu eta gero, Algortara nator gaztainak saltzen. Eguna neka-neka eginda amaitzen dut”. Kale gorrian, termometroak 6 gradu besterik ez dituenean, hiru hormako etxola batean gaztainak saltzea gogorra bada ere, familia ohituragaz jarraitzearen alde egin du Jose Luis Lopezek: “Aitaz hasi nintzen 14 urte nituenean. Bilbon 8 salmenta-postu genituen. Apurka-apurka horiek uzten joan ginen; lan gogorra da, eta ez du diru lar ematen. Aitak utzi zuenean, Algortako eta Areetako postuakaz jarraitu nuen; orain Telletxekoa baino ez daukat. Urte batzuk barru denak utzi beharko ditut”. Datozen belaunaldiek ez dute hotza pasatzeko batere asmorik: “Semeak esaten dit lotsa emango liokeela gaztainak saltzea; nik erantzuten diot, lapurra izatea dela lotsagarria; baina gaztainak saltzen edo beste edozein eratan eguneroko ogia irabaztea ez dela lotsatzeko kontua”. Aurtengo negu euritsuak lagundu ez badio ere, jende asko hurbiltzen da dozena baten bila: “Ez dut ezagutzen gaztainak gustuko ez dituen umerik”. Algortakoak ez dira nolanhiko gaztainak, antzinako lez egindakoak baino: “Batzuk butanoa erabiltzen hasi dira; nik gurago dut ikatzagaz jarraitzea, askoz gozoago gelditzen dira”. o Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

**cianoplan** **Reprografia**  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Ariguo Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 067  
944 648 691  
http://www.cianoplan.es

Imprimatze eta plano kopiak •  
Karteak kolorez eta z/b •  
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •  
Fotokopiak kolorez eta z/b •  
Era desberdinetako koadernaketak •  
Plastifikazioak •  
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •  
ermarkaketak •



# Ikazkinari ongietorriak

**Horra Horra** Algortako Olentzero Batzordeak, **Itxas Argia** Dantza Taldeak, **Zasi Eskola** Dantza Taldeak, **Ziztu Bizian**, **Erromoko Jai Batzordeak** eta **Berantzagi** Dantza Taldeak prest dituzte ekitaldiak

**Ezin igarri Olentzero beharginarengan batzuen krisi horrek eraginik izango duen... Olentzero ikazkina bada, baina ez ikaztun (ikatz-saltzaile); ostera, doan bada ere, askok eduki beharko zuketeen ikatza opari... Baina Olentzero bihotz onegikoa ei da, eta urte osoko txarto-egin guztiak barkatzeko ohitura txarra ei dauka. Dena dela, argi dagoen bakararra da aurton ere beso zabalik egingo diotela ongietorria getxoztarrek menditik herrira datorren ikazkin sapazto maitagarriari.**



Olentzeroren etorrera ospatzeko egitarauen barri ematen duen kartela

**Getxo**, Algorta, Erromo eta Areetan ekin-tza andana prestatu dute hilaren 22, 23 eta 24rako Olentzerori ongietorria egiteko. Horra Horra Algortako Olentzero Batzordea (Algortako ekitaldiak), Itxas Argia Dantza Taldea (Getxoko jarduerak), Zasi Eskola Dantza Taldea, Ziztu Bizian eta Erromoko Jai Batzordea (Erromoko ekin-tzak) eta Berantzagi Dantza Taldea (Areetako ospakizunak) elkarteek antolatuta dituzte ikuskizunak Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuaren babesagaz.

Algortan Kuko, Truko eta Bolenwaider pailazoen ikuskizuna (18:00), bertso saioa (19:00) eta ostean Luhartzegaz erromeria egongo da hilaren 23an San Nikolas plazan; Gabon Gaueko ospakizunak goizean hasiko dira: umeentzako jolasak, puzgarria eta Olentzerori gutuna bidaltzeko postontzia (Geltoki plaza; 12:00), Benantziorik kalejira (17:00), txalaparta eta bertso saio-

ak, Olentzeroren kondairaren kontaketa etab. (San Nikolas, 20:00).

Hilaren 23an Malakaten jaia: txistorra jana, burduntzia, musika etab. (19:30). Eta Gabon Gauean, hilak 24, kalejira Andra Mariko kiroldegitik hasiko da (17:00).

Erromora hilaren 23an helduko dira Olentzero eta Mari umeen gutunak jasotzen (Boronita, 18:00). Gabon Egunean mokadu

**«Pailazoen ikuskizunak, erromeriak, kalejirak, kale antzerkiak, burduntzia, erakusketak, kantuak etab.»**

herrikoia sabeleratzeko aukera egongo da trikitixak girotuta (San Jose eliza, 13:00), Kale antzerkia Erromoko elizaren inguruetan (17:00), Olentzeroren kalejira Erromoko kaleetan zehar (17:30), dantza erakustaldia, abestiak, txokolate jana etab.

Areetan hilaren 22an Potxin eta Patxin pailazoen ikuskizuna egongo da (19:00); Hilaren 24an hainbat argazki eta bestelako erakusketak, umeentzako lantegiak eta erromeria (11:00), Juan Manuel Etxebarriaren ahotik “Gabonetako euskal ohiturak eta ipuinak” (11:45), Berantzagi Dantza taldearen erakustaldia (12:15), ALBERen ber-tso saioa (13:00), Umeen jolasak (16:00) eta Olentzeroren kalejira (19:00). ○

## Datu batzuk

- **Getxoko ekitaldiak:** hilak 23 eta 24
- **Algortako ekitaldiak:** hilak 23 eta 24
- **Erromoko ekitaldiak:** hilak 23 eta 24
- **Areetako ekitaldiak:** hilak 22 eta 24

- **Egitarauen barri:** testuan zehar

## Erromoko eta Algortako

Errekagane eta Etxeandia parkeak erabarrituko dituzte



Erromoko Errekagane parkea

**Getxoko Udaleko** Gobernu Taldeak Algortako Etxeandia Apezpikua parkea eta Erromoko Errekagane parkea zaharbarritzeko egitasmoak onartu barri ditu.

Algortako Etxeandia Apezpikua parkea erabarritzeko lanen aurrekontua 429.000 eurokoa da, eta egitasmoak hurrengo hobe-kuntzak jasoko ditu: umeentzako jolasgunea egitea parke erdian, hiri altzari barriak ipintzea, irisgarritasun zailtasunak saihestu, sarrera barria eginez, eta gaur egun parkean dituen altuera biak bakarrean jarriz; argiztapena hobetu, albo batean pergola eraiki etab. Hirigintza zinegotzi Joseba Arregik adierazi duenaren arabera, *“parkea itxi egingo da gauetan, jendeari sartzeko galanazteko, bizikidetzako trabarik izan ez dadin”*. Halaber, Getxoko alkate Imanol Landak azaldu duenez, *“datorren urtean antzoki barria altxatze-*

*ko lanengatik San Nikolas eta Getxo Antzokia plazak jasango duten okupazioaren alternatiba legez planteatzen da”* parkearen erreforma”. Parkea hurrengo urteko udarako erabilgarri egotea espero dute udal arduradunek.

### Errekagane parkea

Erromoko parkea zaharbarritzeko aurrekontua 530.000 euro ingurukoa da, 5.700 metro koadroko azalera egingo dira lanok, eta datorren urteko udarako amaitzea espero dute. Egitekoen artean ondorengoak daude, besteak beste: 3,20 metroko zabalera duen pasealekuaren galtzada konpontzea, drainatze sistema barria ipintzea, hiri altzariak aldatzea, Geltoki plazarinoko lotura hobetu eta 350 metro luze eta 2,75 metro zabalera duen txirrindularientzako bidegorria egitea. ○

## TOPONIMOEN ETIMOLOGIA LIBURUA

Getxoko Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute “toponimia aztertu eta zabaltzeko ahaleginean beste pauso bat” emateko asmoagaz. 2009ko abenduaren 31ra bitarteko hitzarmena da, eta helburu nagusia toponimoen etimologia liburuaren osatzea da. Getxoko alkate Imanol Landak adierazi duenez, *“ez da aurretik ateratako liburuaren bigarren edizioa izango, baizik eta osatuagoa... Gainera, erantzuna emango diegu herritarrek gaztelaraz ere ateratzeko egindako eskareei”*. Liburuaren besteak beste, toponimoen azalpen etimologikoez (jatorriaz), argazki zaharrez eta barriez eta mapa batez osatuta egongo da. Euskaltzaindiako idazkari Xabier Kitanak azaldu legez, *“gure ondare lexikoa gordetzeko jatorrizko izenak finkatzea eta erreferentzia sendoak edukitzea komeni da, eta horregatik, bertsio osatuagoa egitera lagundu gura du Euskaltzaindiak”*.

## HURRENGO URTEAN TAXI-TARIFAK KARUAGO

Azaroaren 28ko Udalbatza 2009an taxien tarifak %6 igotzea onartu zuten EAJren eta EBren aldeko botoakaz, PSE-E eta PP abstenitu egin ziren. Hala, astegunetan 07:00-22:00 bitartean “bandera jaistek” 4,75 euro balioko du eta kilometro bakoitzak 1,01 euroko kostua izango du. Jaiegun, larunbatetan 13:00etatik aurrera eta astegunetan 22:00-07:00 bitartean, gutxienezko kostua 5,2 eurokoa izango da eta kilometroko prezioa 1,12 euro.

## ANDRAZKOEN AURKAKO INDARKERIA SAIHESTEKO SISTEMAK IKERGAI

Getxoko Udalak emakumeen aurkako indarkeria saihesteko sistema barriak eta horien eraginkortasuna ezagutzeko azterketa egitea erabaki barri du, gizonen jazarpena jasaten duten udalerriko andrazkoak hobe babesteko asmoz. Azterketa legegintzaldia baino lehen egingo ei dute.

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

Garaizar  
barrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net  
Illaeta kalea 1 • ALGORTA



Torreña 2, ALGORTA  
T. : 94 491 12 71

**Jon Urraza** > aktorea

“Aktore izateaz bizi naizela esaten dudanean jendea harritu egiten da”



Hasieran umorezko bakarrizketan egiten zituen; gaur egun Organik taldean ere badabil

**Bilbao Kafek antolatutako Antzerki Gidoi Laburren lehiaketa irabazi barri du Jon Urraza aktoreak (Algorta, 1971) “Morritson eta Gartzia: kultuko Antzezlan” obragaz. Jon Zubiagagaz batera antzeztuko duen lana laster estreinatzea espero dute, Getxoko Euskara Jardunaldien barruan izatea gura zuten, baina ez da posible izan.**

—Zorionak. Noizko estreinaldia?

—Antzezlan idatzi nuen ez lehiaketa baten parte hartzeko, baizik eta antzezteko asmoz. Estreinaldia atzeratu zitzaigunez, bada bidali nuen. Gidoi laburrak izena du lehiaketak, baina berez formatu txikiko antzerkirako gidoiak dira; kontua ez da iraupena, baizik eta eszenografia, aktore etab. gutxiagaz egiten direla; kafe antzoki, taberna eta horrelakotan antzez daitezkeenak. Aurreko obra biak estreinatu ditut Getxoko Euskara Jardunaldietan, Umore Jardunaldien barruan. Aurten, funtzio bakarra egon zen, ETBko aktoreen “Club de la Comedia” delakoa. Nire asmoa zen lan hau aurreko urtean estreinatzea, baina Jon Zubiagak, *Bob, nor da Bob?* antzezlan ere beragaz egiten nuen, bada berak Gose taldean jotzen du, Gatillazon disko

barria atera behar zuten, eta ez zuen sartu gura antzezlan barri batean, orduan erabaki genuen “*Bob, nor da Bob?*” lanagaz beste urte bete jarraitzea eta hau atzeratzea. Biok antzeztuko dugu hau ere, bera Morritson izango da, ni Gartzia. Morritson musikaria da, lehen alternatiboa zen, baina orain ezkontzetan-eta jotzen du bere neska-lagunagaz, eta batera bizi dira. Ostera, nire pertsonaia aktorea da, orain ez dauka neska-lagunik, ez dauka etxerik. Orduan, proposatzen dio Morritsoni bien artean antzezlan bat sortzea; hala, bide batez ea haren etxera bizitzera joatea lortzen duen. Umorezko lana da, helduentzat, zuzeneko musikagaz; Jonek joko du, musikaria ere badelako. —“*Bob, nor da Bob?*” lanak oso harrera ona izan du.

—Oso ona! Hilaren 26an Izaban antzeztuko dugu eta 42. funtzioa izango da; estreinaldia Algortan, Euskara Jardunaldietan, egin genuen 2005ean. Beste urte bete lan honegaz jarraitzeko erabakia, azkenean, ondo urten zaigu. Espero dugu lan barria otsailera-ko estreinatzea, Korrika Kulturalaren barruan, ia herrietako elkarteak animatzen diren gure lan hau programatzen! Algortan egitea ere espero dugu. Gustatzen zait estreinaldia hemen egitea, baina gero sentazio bixia izaten dut. Jendeak gurago izaten ditu estreinaldiak, baina edozein aktorek esango dizu hobeto urtetan dela funtzio batzuk daroazuzenean. Oraingoan gurago dut fun-

**«Espero dugu Korrika Kulturalaren barruan egitea estreinaldia; otsailean edo»**

tzioa apur bat jorratuagoa dagoela ikus dadila Algortan. Kontratatu gura badute, noski! —Zelan bizi da euskarazko antzerkia?

—Ez dut uste zailagoa denik, Euskal Herri mailan, antzerkia euskaraz egitea erdaraz egitea baino. Gu bezalako erdarazko taldeek ere, ezezagunak edota famatuak ez direnak, ez dute zirkuitu jakinik. Herrietan euskara elkarteak-eta egoten dira, eta gurago izaten dute euskarazko lanak programatu. Bestalde, ni honetaz bizi naiz, aktorea naiz. Jendea harritu egiten da hori esaten dudanean. Antzezlan hau egiten gabiltza, Jonek Gosen jotzen du, publikitate baterako deitzen dizute, telebistatik kapituluaren baterako...

—Aktoreak telebistan eta zinean bakarrik!

—Hori da! Badirudi ez bazara telebistan edo zinean agertzen, ezin zarela honetaz bizi. Futbolariak legez, bigarren B mailan ondo irabazten da, baina badio “ni futbolaria naiz” esango diote “baina zuk ez duzu Athleticen jokatzeko”. ○

## Etorkin-getxoztarrak

### Arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren kontrako kartel lehiaketa



Etorkinen Nazioarteko Egunaren harira Udal Immigrazio alorrak plazaratutako kartelaren irudia

**Getxotik Mundura** eta Mundutik Getxora ekimenaren ekitaldiak oraintsu amaitu dira; egunotan, Etorkinen Nazioarteko Egunaren harira, Getxoko Udaleko Immigrazio arloak, eta udalerrian kultura artekotatuenaren alorrean lan egiten duten elkarteek prestatutako jarduerak garatzen dabilta, hala nola: GIZA ART elkarte Zubietxe-Bizkaiko Aldundia erakusketa (hilak 4-21; Torreneko erakusketa aretoa, Algorta), “*Nola ikusten dugu immigrazioa?*”. Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren zuzendari Xabier Aierdiren ahotik, Getxoko immigrazioari buruzko diagnostikoaren ondorioen eta pertzepzioen analisisari

buruzko hitzaldi-aurrezpena (hilak 18, 19:30; Torrene), Bizipenen Getxoko World Kafea (hilak 20, 11:30-13:30; Torrene) Getxoko herritarrek immigrazioa nola ikusten duten jakiteko mahai-ingurua. Bestalde, Arrazakeriaren, xenofobiaren eta intolerantziaren kontrako Nazioarteko Egunerako (martxoak 21) kartel lehiaketa antolatu dute. Ordurako Getxok plazaratutako duen leloa “Aniztasunaren alde, diskriminazioaren kontra” izango da, eta kartelak aurkezteko epea hilaren 29ra arte dago zabalik. Lanak Herritarren Harrerarako Bulegoan aurkeztu behar dira. ○

Informazio gehiago: [www.kaixogetxo.net](http://www.kaixogetxo.net)

## EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA KALEAN

Getxoko Udal Euskara Zerbitzuak, Euskal Herriko beste 110 udalerrigaz elkarlanean, Gabonaldian euskarazko produktuak oparitzeko kanpaina abiarazi du aurten ere. Horretarako, euskarazko produktuak batzen dituen katalogoa plazaratu dute. Euskarazko Produktuen Katalogo barriak 16 urtetik beherako gazteei eta umeei begirako produktuak batzen ditu; urteko barritasunak batzen ditu katalogoak eta 317 produkturen barri ematen du; musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailuak, informatikako produktuak etab. daude oparigaiaren artean. Getxoko Udal Euskara Zerbitzuak guztira katalogoaren 267.000 ale banatuko ditu, horietako batzuk liburutegietan eta udal egoitzetan eskura daitezke. Horrez gainera, katalogoa sarean ere ipini dute.

Informazio gehiago: [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)

## GETXODANTZAN'08 GABONETAKO IKASTAROAK

Getxo Dantza Kultur elkarteak aurten ere antolatuko ditu GetxoDantza'08 Gabonetako ikastaroak. Ikastaroak hilaren 26tik 28ra izango dira, nazioartean diharduten dantzari eta irakasle ezagunek emango dituzte, besteak beste: Ander Zabala (dantza garaikidea), Elvira de Andres (dantza estilizatu eta flamenkoa), Mercedes Villanueva (dantza klasikoa) etab. Ikastaro bakoitzak 70 euroko prezioa du.

Informazio gehiago: [627472621](http://627472621)

## AQUARIUMA PORTU ZAHARREAN?

Getxoko udaleko PSE-E alderdiak Portu Zaharreko orubean “lehen mailako” itsas akuariuma egiteko proposamena egin du; PPK aldeko bozka eman zuen, EAJ abstenitu egin zen eta EBK kontra bozkatu zuen. Proposamena Bizkaiko Aldundiari egin ei diote, eta orain horren esku dago ikerketa egitea eta oniritzia ematea edo ez. Dena dela, momentuz proposamena baino ez da...



### Basurto

Algorta S.L.

altzariak

### LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 944 607 162 / Telletxe 15 • T: 944 604 244 • ALGORTA



Ritxi Salvador > Kalian Hiri Kultur Gunea

“Inguruko eskaintza kulturala handitu gura dugu, horrelako gune askorik ez dago”

**Ohiko eskaintza kulturaletik aldendu, eta ekimen desberdinentzako eta merkeentzako aukerarik badago Leioan; horra hor Kalian Hiri Kultur Gunea. Iturriondo kaleko fabrika dago, erdisotoan. Hainbat gela dauka, baita ikuskizunetarako taula eta barratxoak. Ritxi Salvador elkarteko kideak luzatu du bertaratzeko gonbita.**

—Kalian Hiri Kultur Gunea zarete, zertan da hori?

—Elkarte Kulturala da, orain lau urte zabaldu genuen. Hainbat diziplinatuko artistak ekarri eta espazio berean batzea da ideia, baita inguruko eskaintza kulturala handitzea ere. Horrelako gune askorik ez dago eskualdean, ezta Bilbo inguruan ere. Hilabetez hilabete egiten dugu programa, kartela osatu eta korreo elektronikoko bidez bidaltzen diogu jendeari. Astean behin batzen gara, lana antolatzeko. Elkarrekin auto-gestionatua da, alokairua ordaintzeko lain ateratzen saiatzen gara gure ekimenakaz.

—Zehazki zer antolatzen duzue?

—Orainsu laugarren urtebetzea ospatu dugu jai batez. Baina ez dugu jai hutsa egiten; eduki kulturalagaz bete ohi dugu. Aurten magia, dantza, kontzertua eta DJak izan ditugu.



Kalian Iturriondo kaleko 2.ean dago, erdisotoan

gu. Gainera, Konfukzio tokatu zaigu abenduan, bi hilabete behin egiten dugu eta. Funkyagaz lotutako ikuskizuna da, musika taldeek eta DJek parte hartzen dute. Azkenaldian tailer asko dauzkagu, geroz eta arrakastatsukoak dira. Orain, asteazkenean, Kabaret tailerra eta antzerkia pertsonaia erakitzeke beste ikastaro bat egiten gabilta. Gainera, txalaparta, kajoia... jotzen ere ikas daiteke, eta sabel dantza, zein flamenkoa dantzatzen. Azken horrek eskari handia

dauka, agian modan egongo da.

—Gai bereziak dira batzuk...

—Bai, baina ez da kontrara ibiltzearen; ateratzen doanari jarraitzen diogu.

—Jendeak gustura hartzen ditu?

—Egia esan bai, ez genuen uste horrenbeste ekimen egingo genituenik. Jendeak babesa eskaini digu hona etortzen eta tailerretan parte hartzen. Edukiera ez da oso handia, ehun eta hogeitabat lagun kabitzen da lokalean, baina jendea etorri badator: o

## Udondoko zubia

Burdinurtuko zubia monumentu izendatzeko eskatu dute adituek



Udondo erreka Ibaizabalera irteten da errepidearen eta zubiaren azpitik

**Udondoko** zubia monumentu izendatzeko eskatu dute historia-ondarearen defendatzaileek. Areetatik Bilbora doan errepidearen azpian dagoen burdinurtuko zubia da, hain zuzen ere. Europan gisa horretako zubirik zaharreneetakoa dela jakinarazi du Joaquin Karkamo Industria-Ondarearen Euskal Elkartearen ordezkariak.

Gehienentzako ezezaguna den historia dauka. Adituek azaldu dutenez, Bilboko Areatzako aintzinako zubiaren arku bat da Udondoko zubia, hamaika metro zabalekoa. Isabel II.aren omenez egin zuten; 1845ean hasi ziren eraikitzen, eta hiru urte beranduago inauguratu zuten, 1948ko urtarrilaren 23an. Baina ez zuen luze iraun, Bigarren Gerra Karlistan suntsitu baitzuten, 1874an.

Gerra horretan ez zen izan Areatzako suntsituta geratu zen gauza bakarra. Oraingo errepidearen bidetik zirgariak ibili ohi ziren ontzietatik tiraka, Bilbora igotzen; zirga bidea esaten zioten. Areatzako zubiari bezala, gerrak bideari ere eragin zion, Leioako Udondo erreka gainetik igarobidea behar baitzuten zirgariak beren lana egiteko. Areatzako zubiaren egin zuela ematen zuen, baina horra hor aukera: Bilboko Udaleko osoko Bilkurak onartu zuen zubiaren arkuetako bat Udondokoa berreraikitzeke erabiltzea. Errepidearen porlaneko egituraren azpian gorde zuten, gaur arte iraun du sasoi onean, baina herritarren begiradatik ezkutuan. Orain urte bi topatu zuen Karkamok, itsasadarrean txalupan zebilela. o

### MAITASUN GUTUNAK HILE AKABURA ARTE AURKEZ DAITEZKE

Abenduaren 29a baino lehen aurkeztu behar dute lana Maitasun Gutunen X. Lehiaketan parte hartu gura dutenek. Lau maila daude: 18 urte beharagoentzat, 19 urtetik 30 urtera bitartekoentzat, 31 urtetik 55 urtera bitartekoentzat eta 56 urtetik gorakoentzat. “Sentimenduak komunikatzea sustatu eta genero horren aberastasuna berreskuratzeko asmoz” antolatuta ohi du Udaleko Kultura sailak lehiaketa.

Informazio gehiago: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

### KANTIKAK EMANGO DU GABON KONTZERTUA EUSKALDUNAN

Gabonetako kontzertua eskainiko du Kantika koralk abenduaren 20an, Bilboko Euskalduna Jauregian, 20:00etan. Basilio Astulez dute zuzendari Kantika osatzen duten 45 gaztetxoek. Udal Musika Eskolako ikasleak dira, eta 2001ean sortu zutenetik, Kantikak munduko hainbat txapelketatan sariak eskuratu ditu, baita zenbait disko argitaratu ere.

### ISUNA TXAKURREN GOROTZAK JASOTZEN EZ DITUEN JABEARI

Kakak ez jasotzeagatik 30,05 eurotik 601,01 euroko isuna ezar diezaike txakur jabeari. Herriko zonalde berdeak eta komunitarioak zaintzearen aldeko kanpaina abiatu du Udalak, eta sei hilabete iraungo du. Erroldatutako 1.500 txakurren jabeak jakinarazten dabilta kanpainaren eta isunen nondik norakoez. Lau formatu erabiliko dute horretarako: liburuxka informatiboa, lorategien sentimenduak azalarazten dituzten bunbuiloak, txartel horiak eta batzeko poltsak eroateko tresna. Ekintzotaz gain, zortzi pertsonatako taldeak zonalde horietako zaintza egingo du txakur jabeak liburuxkak banatzeko.

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

**ERROTULOAK**



**ERA GUZTIETAKO ERROTULUAK eta INPRESIO DIGITALAK**

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

**Krystal Montoya** > Kale Dor Kayiko ijito elkarte kulturala

“Aldatuz doa ijito herria, aurrera egiten ari da, baina sekula ez diogu utziko garena izateari”

**Kale Dor Kayiko ijito elkarte kultureko kide da Krystal Montoya Jimenez erandioztarra. Erandion, astelehenero egin ohi da azoka txikia, baina abenduaren 15ekoa berezia izan zen, elkartasun azoka egin zuten bigarren urtez. Gipuzkoan eta Bizkaian behar egiten du elkarrekin, eta Ijito herriak bere burua hezi eta aurrera egiteko xedea dute; baina hori bai, bere izateari uko egin barik.**

—Elkartasun azoka egin zuten abenduaren 15ean.

—Bigarren urtez Elkartasun Azoka egin dugu. Iaz ateratako diruagaz Indiako ume bat babestu genuen, Ijito herria Indiatik dator eta. Elkartasun jaialdia ere egin genuen. Aurten ateratako dirua, barriz, Saharar herriarentzat izango da; une honek beraiek lan egiten duten lagunak elkarlanean gabilta.

—Elkartasun jaialdia ere egin duzue?

—Bai, hil hasieran izan zen eta ondo ateratu zen. Nuyum Saharar herriagaz elkartasun elkarteko lagunak ere bertan egon ziren. Antzerkia ere egin genuen, ijitoen eskutik. Hori ere bada helburua, gazteek ekimen horietan parte hartu eta antolatzea.

—Hori da elkarrekin egiteko?



Krystalek Erandioko Elkartasun Azokan jarri zuen postua

—Ijito herritarrentzat behar egiten dugu, eskolari dagokionez batez ere. Ijito herria ikasten eta hezitzen jarraitzea bultzatzen dugu, hori oso garrantzitsua da eta. Heziketaren garrantzia ikusarazten saiatzen gara, eta gero eta lagun gehiago dabil ikasten.

—Zerbait azpimarratuko zenuke?

—Ijito herria asko aldatzen dabilela, apurka aurrera egiten dabilela, hori da garrantzitsua. Ijito herriari buruz entzuten dugun guztia txarra izan ohi da, hedabideak gehienetan

morbo bila dabilta; lapurretan dabilta edo istiluak sortzen dituzten ijitoak baino ez dituzte ateratzen. Baina nire ustez beste ijitoak atera beharko lituzkete, ikasten duten ijitoak bilatu beharko lituzkete. Badaude sukaldariak, apaizak, poliziak edota irakasleak diren ijitoak. Aldatuz doa gure herria, baina garena izateari utzi barik. Sekula ez diogu uzten garena izateari, hori da garrantzitsua. Egiten duguna egiten dugula, baina gure izatea mantentzea. Sekula ez diogu utziko garena izateari. ○

## 2009an %18 diru gutxiago

Datorren urteko **aurrekontua** onartu du Udalak, eta aurten baino **baxuagoa izango da**



Altzaia kiroldegitik itsasadarrera doan aldea urbanizatzeko dirua gorde dute 2009ko aurrekontuan

**Udalak** 41,6 milioi euroko aurrekontua onartu du datorren urterako, aurten baino %18 diru gutxiago kudeatuko du, ekonomia egoera dela, zein aurreikuspen txarra dela, alkateak aditzera eman duenez. EAJ alderdiak gehiengo osoz onartu ditu, PPK eta EBk aurka bozkatu zuten eta PSE abstentitu zen.

Pertsonal gastuetarako gorde dute diru gehien, aurrekontuaren 12,6 milioi euro. Inbertsioetarako ere 12 milioi euro erreserbatu dute. Aurtengo aurrekontuagaz alde nabarmena dago atal horretan, izan ere, aurten 22,9 milioi euro jaso du inbertsioen atalak. Dena dela, aurtengoa ere ezohikoa izan ei da, 2007an baino %116 gehiago eskaini

baitote atal horri, Udaletik zehaztu dutenez.

Azpiegitura eta urbanizazio lanetarako izango da atalaren diru gehiena, 7 milioi euro. Altzagako Tartanga ingurua urbanizatzeko dutela gogorarazi du Udalak, zehazki, kiroldegitik itsasadarrera doan ingurua. Lutxana eta Altzaia auzoen arteko hirigintza loturaren lehenengo faseari ere ekingo diote. Gainera, Magdalena eta Goikoa arteko errepidearen lehen zatia ere egingo dute, San Jose egoitza eta Agerre artekoa. Errepideak egungo landa-bidea ordezkatzeko du.

Baina ez hori bakarrik. Aurreko aleetan jakinarazi genuenez, Goikoa auzoa saneamendu-sareagaz lotuko dute; zehazki, 700.000 euro gorde dute lan horretarako. ○

### EUSKARAREN BIKAIN ZIURTAGIRIA EMAN DIOTE ARLAN ENPRESARI

Euskararen erabilera sustatzeagatik Bikain ziurtagiria eskuratu du Arlan enpresak. Guztira Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako 30 enpresari eman dio saria Eusko Jaurlaritzak. Bilboko Guggenheim museoan egin zuten ekitaldia azaroan. Jaurlaritzak hiru Bikain sari mota eman ohi du, Bikain Beltza (gutxieneko maila), Zilarrezko Bikain (erdi maila) eta Urrezko Bikain (goi maila). Zilarrezkoa eman diote Arlan enpresari.

### GENERO INDARKERIA PAIRATU DUTENENTZAKO TELEASISTENTZIA

Indarkeria pairatzen duten emakumeentzako mugikor bidezko teleasistentzia zerbitzua abiatu du Udaletxeak, Gurutze Gorriagaz sinatutako hitzarmen baten ondorioz. Zehazki, “*babes agindua duten emakumei berehalako laguntza zerbitzua emango diete egunean 24 ordutan, urteko 365 egunetan*”, jakinarazi dutenez. Emakumeak erraz jarri ahal izango dira harremanetan Laguntza Zentroagaz, eskuko telefonoaren botei bat sakatuta. Esku libreko modalitatea ere izango dute telefonoek.

**Eskaerak tramitatzeko: Udaleko Gizarte Zerbitzuen Saila, 944890172**

### KE-DETEKTAGAILUAK ADINEKOENTZAT

Udaleko Gizarte Ekintza Sailak ke-detektagailuak jartzeko zerbitzua abiatu du. Herrian erroldatuta dauden 70 urtetik gorako pertsonentzako eta ez-gaitasun handiak dituzten pertsonentzako jarriko dituzte, kosturik gabe. Detektagailuak ehun etxebizitzatan ipintzea aurreikusi dute aurten, baina lehentasuna izango dute bakarrik bizi direnek, mugikortasun ahalmena murriztua dutenak eta bestelako ezgaitasunak dituztenak. Gaur egun 26 etxek daukate zerbitzu hori.

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



### Basolanak

- Zuhaitz landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
**ERANDIO (Bizkaia)**  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

Gura duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitetarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

[www.arlan.biz](http://www.arlan.biz)

## ITZARTURI UDAL-LOKALA ERABILTZEN JARRAITZEKO BAIMENA EMAN DIOTE

Landa Doktoareen kaleko hirugarrenean dagoen lokala erabiltzen jarrai dezake Itzartu Emakumeen Taldeak. Hainbat ekimen eta tailer gauzatu ohi ditu elkarteak. Udalaren lokala da eta urte bitarako kontratua sinatu du Itzartugaz. Urtero-urtero barrutuko dutela aurreikus daiteke, alde biek adostu dutelako. Halere, egungo kontratua ez da luzatuko lau urte baino gehiago. Izartuk, era berean, Udalaren alde erantzukizun zibilaren aseguru hitzartu beharko du.

Itzartu: Landa Doktoarea 3. 94 676 55 95/  
itzartu@sopelana.com

## OLENTZEROREN POSTALEN LEHIAKETA IRABAZI DU SOPELOZTAR BATEK

Umeentzako postal lehiaketako irabazleak jakinarazi dituzte dagoeneko. Ane Saitua Esesumaga sopoloztarrak eskuratu du lehenengo saria, 12 urte ditu eta errotuladoretz margotu du Olentzero bere opariakaz eta astoagaz, Sopelara bidean. Irudi hori erabiliko dute gabonetako postala egiteko. Bestalde, barrikar batek eroan du bigarren saria, Ane Garcia Elorriagak. Margoakaz egin du postala. Hirugarren saria, barriz, Sopelako beste bizilagun batek jasoko du, Garazi Eleizalde Urrutiak. Honek ere margoak erabili ditu. Abenduaren 29an banatuko dituzte sariok pilotalekuan, 18:00etan. Gainera, aurkeztutako lan guztiak erakusgai ipini dituzte urte amaiera arte.

## ANTZERKI SAIO BI URTEA AMAITU AURRETIK

Kukubiltxo taldeak haurrentzako *Kukubel* lana antzeztuko du abenduaren 23an pilotalekuan, 18:00etan. Lau egun beranduago, abenduaren 27an, antzeztuko du Lakrikun taldeak urteko azken antzerkia, *Grebana gaude*. Hall kulturalan izango da, 19:30ean.

## Haurreskola izango da!

Euskarazko **D ereduko zortzi gela** izango ditu, eta **84 umerentzako** lekua



Zaldu sektorean eraikiko dute haurreskola, frontoitik eta Kultur Etxe barritik hurbil

**Azkenean** haurreskola eraikiko dute Sopelan. Udaleko azaroko Osoko Bilkuran erabaki zuten Haurreskolak partzuergoa eratzea. Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmenaren baitan hartu dute egitasmoa gauzatzeko erabakia.

Zortzi gela izango ditu eskolak, D eredukoak, eta hainbat gune: jolaserako gunea, jatekoa prestatzeko beharrezkoa den homikuntza duen eremua, erabilera anitzetarako gunea, kanpoko jolastokia, zuzendaritza zein idazkaritza bulegoa, langileentzako komuna eta aldagela, eta biltegia. Zirkulazio eta sarbide

zonaldeak ere atonduko dituzte. Guztira 550 metro koadroko azalera eskainiko diote haurreskolari, Zaldu sektorean. Zehazki, frontoia-aren atzean kokatuko dute, Kultur Etxe barria egiten dabilzan gunearen inguruan. Udaletik azaldu dutenez, “*inakaskuntzarako mugatua dagoen eremu barruan*” eraikiko dute.

Jakinarazi dutenez, oraindik urtebete ez duten 32 haurrentzako eta urtebete beteta duten 52 haurrentzako lekua izango du. Guztira 84 haurrentzako lekua. Urte bitik gorako umeek, ostera, Zipiriñe eskolan izango dituzte ikasgelak. ○

**LAIKAK Taberna**

Bentatu 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78  
T.: 94 491 27 34

**Melike Yasar** > Bakearen aldeko emakumeen bulegoa

“Lortu gura dugu emakume kurduak libre izatea, Kurdistanen zein nazioartean”



Gite-ipes elkarteak gonbidatuta hainbat hitzaldi eman dute emakume kurduak, hango egoerari buruz

**Abenduaren** 11n eskaini zuen hitzaldia Sopelan Melike Yasarrek. Alemaniako emakume kurduen bulegoko kidea da, Düsseldorf herrian.

—**Alemanian duzue bulegoa, zein da zuen egitekoa?**

—Kurdistango Emakumeen Mugimendua da, bakerako mugimendua, 2000n sortu zen. 1999an PKKk armak utziko zituela esan, eta Turkiak proposatu zuen bake egoera. Emakumeok erakunde hau sortu genuen bake prozesu horretan laguntzeko. Gutako emakume askok senideak galdu ditu borrokan, horren barri eman gura dugu European, baita Turkian ere. Saiatzen gara gatazkari buruzko informazioa ematen emakumeon ikuspuntutik.

—**Zertan da Kurdistango egoera?**

—Suposatzen zen bake estatusa zegoela 2000tik 2005era bitartean, baina ez da ezer aldatu. Emakumeen erakundeak legez kanporatzen dituzte, hizkuntza, kultura, zein kurdu naziotasuna ez dira onartzen.

—**Emakumei nola eragiten dizue?**

—Oso gogorra da emakume kurduen egoera. Feudalismoa dugu gure kulturaren. European emigrante gisa atera behar dugu aurrera, gure eskubideak eskuratu behar ditugu, baina feudalismoa ere hor dago. Hirurak borrokatu behar ditugu. PKK sortu zenean, lehen aldiz sortu zen emakumeen artean libre izateko eskubidea. Gauzak aldatuz doaz eta eskubide asko eskuratu dugu, baina feudalismoaren egituraren barnean ondino oso zaila da. Hori da erronkarik handiena. Esaterako, guk “Emakumea bizitza da, etzazu hil bizitza” lelodun kanpaina egin genuen, emakumei zein gizonei zuzenduta. Lortu gura dugu emakume kurduak libre izatea, Kurdistanen zein nazioartean, finean munduko emakume guztiak libre izatea. Hemengo emakumeen elkarteak ere batu gara egunotan. Eskubide asko eskuratu ditugu, baina ondino ezkontza da arazorik handiena, senarrak erabakitzen du-eta zer egin. Hori aldatu gura dugu, gure bizitzaren jabe izateko eskubidea eskuratu behar dugu. ○

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
  - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
  - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

**PASIO BIZIDUNERAKO  
2.000 EURO BATU DUTE  
AZOKA TXIKIAN**

Ostiral Santuan irudikatu ohi dute Berangon Pasio Biziduna, Aste Santuan. Datorren urterako ikuskizunerako dirua batzen dabilta partehartzaileak; azoka txikia egin zuten abendu hasieran, ohi legez, baita arrakasta lortu ere. Antolatzaileek jakinarazi dute 1.500 lagun hurbildu zela azoka txikira, eta 2.000 euro batu zutela bertan salduko artikuluei esker. Arrakasta nabarmenagoa izan da, artikuluei edo objektuak euro batean eta bitan saldu zituzten-eta. Aurten gainera, aurreko edizioetan baino artikuluei gehiago eman dituzte berangoztarrek azokan saltzeko.

**HAURREK BADUTE  
LIBURUTEGI PROPIOA**

Abenduaren 13an inauguratu zuten Haur Liburutegia Berangoeta Kultur Etxean. Beheko solairuan egin dute haurrentzako liburutegi propioa. Beraz, helduentzako liburutegitik aparte, beren guneaz gozatu ahaliko dute berangoztar txikiek hemendik aurrera. Izan ere, liburutegi nagusiaren barnean izan dute, beraientzako txokoa atonduta orain arte. Inaugurazioan hainbat ekimen egin zuten, euskal mitologiari buruzko tailerra, esaterako. Kultur Etxea ezagut zezaten bisita gidatuak egin zituzten umekaz, eta jolastokia ipini zuten. Gurasoentzako hitzaldia ere egin zuten, Haur Liburutegiko egitasmoak azaltzeko.

**Berangoeta Kultur Etxea: Simon Otxandategi 64**



JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI 48990 GETXO

**Otxandategitarrek 65 urte  
Ekitaldia** egingo du dantza taldeak **urtarrilaren  
4an** eta nazioarteko **festibala uztailean**



Simon Otxandategi Dantza Taldearen 50-60 urteetako argazkia

**Erretirorako** adina iritsi ohi da 65 urteagaz, baina ez da hori Simon Otxandategi dantza taldearen asmoa. Urtebetetzea ospatzeko ekitaldia egingo dute urtarrilaren 4an, herriko pilotalekuan. Haur zein helduek dantzatzeko dute, guztira ehun bat lagunek; eguerdiko 13:00etan izango da. Dantza eta koruaren zuzeneko abestiak uztailean dituzte, ohiko ekitaldian egiten duten legez.

Ekitaldian indarrak batu, eta 2009rako prestatuko dira; izan ere, Dantza eta Kantuen Hirugarren Nazioarteko Jaialdia egingo dute uztailearen 13tik 19ra bitartean. Atzeritiek helduko dira Berangora berrehun

lagunetik gora, mundu osoko hainbat herrialdeetatik. Erbehereak, Belgika, Herri Katalanak, Alemania, Austria eta Poloniako dantza taldeak igaro dira herrietik 1991z geroztik. Lehenengo Nazioarteko Jaialdia 2003an egin zuten, Otxandategiren 60. urteurrenean. Dantza taldeko partaide ohiak eta egungoak batera aritu ziren taula gainean.

Mundutik Berangora, baina Berangotik mundura ere egingo dute Otxandategitarrek, Argentinara joateko asmoa baitaukate 2010ean. Herritar orok izango du beraiekaz batera joateko aukera, hirurehun lagunek hegazkin bat betetzeko helburua baitute. ○

**Anartz Ruiz Manzanos** > *Software kaltegarriak* liburuaren egilea

“Adituentzako, zein erabiltzaile arruntentzako eskuliburua egin dut”



Anartz Ruiz Manzanos, *Software Kaltegarriak* liburuaren egilea

Denok izan dugu noizbait gure ordenadoreak gaixotzen dituzten birusen, zein beste software kaltegarrien barri, nahiz eta gutxi batzuk bakarrik dakiten hori zertan datzan. Gai honen inguruan, adituentzako, zein oinarrizko erabiltzaileentzako balio duen euskarazko lehenengo liburu idatzi du Anartz Ruiz Manzanos gazteak: *Software kaltegarriak*. Lanaren nondik norakoen barri eman digu; hala ere, gehiago jakin gura duenak, liburu dendetan aurki dezake.

—Noiz hasi zinen egitasmoagaz?  
—Informatika Ingeniaritza ikasi nuen Donostian; 2005ean Karrera Amaierako Proiektu bezala aurkeztu nuen *Software kaltegarriak* lana. Epaimahaiak publikatzea proposatu zidan, euskaraz ez zegoelako horrelako lanik merkatuan. Elhuyar Fundazioagaz jarri nintzen kontaktuan, eta abutzuan publikatu zidaten.  
—Zertan datza lana?  
—Software kaltegarriek buruzko esku-liburua da; zelan ugaltzen diren, zelan kutsa-

tzen duten konputagailua... sortzen diren-etik duten bizimodua azaltzen dut. Badago atal apalago bat ere, informatikari buruz lar ez dakitenentzat. Horretan, aipatutako guztiaren laburpena egin dut, baina hizkuntza ulerterrazagoan.

—Zelan egin duzu azterketa?  
—Lehendabizi dokumentazio lana egin nuen. Interneti esker, nahiko erraza izan zen. Horrez gain, azterketa praktikoa egon

**«Kontu handiz ibili behar izan naiz informazio lar ez emateko»**

da. Ordenadorea kutsatu nuen software kaltegarrien bizimodua behatzeko.  
—Zeintzuk zailtasun izan dituzte?  
—Alde batetik, informazio lar ez emateko, kontuz ibili behar izan naiz; ez nuen hakerrentzako liburu egin gura. Bestetik, hizkuntzaren arazoa egon da. Zaila da informatikari moduan pentsatzen duzuna hizkuntza ulergarrian adieraztea. ○



**TXIBERRI  
edantokia  
frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15



Teléfono: 940 701 120

**Ajuria  
taberna**

Andrés Cortina 2

**ALGORTA**



Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



**VIEJO CAFE**

kopak eta giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA



**AIXERROTA BHI**  
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



## INAUSKETA IKASTAROA 2009KO OTSAILEAN

2009ko otsailerako inausketa ikastaroa antolatu du Uribe Kostako Mankomunitateak. Aurten aukera bi egongo da; alde batetik, oinarrizko inausketa ikastaroa hasibarrirentzat, eta bestetik, ikastaro aurreratua iazkoan parte hartu zutenentzat. Eskolak zapatu goizetan izango dira; hala ere, ikastaroa aste barruan egiteko nahikoa eskari bageo, astegunetako taldeak atera litezke. Plaza kopurua mugatua da, eta Mankomunitateko herrietan errolatutakoek bakarrik har dezakete parte. Eskari orriak jasotzeko azken eguna urtarrilaren 30a izango da.

## “COLORADO ARROILA HANDIA PIRAGUAZ” HITZALDIA PLENTZIAN

Arizonako Coloradoko Arroilak ezelangorik aldaketarik jasan barik iraun du. Geologiaren ikuspuntutik garrantzi handiko txokoa da. Carlo Escribano Lasak, Plentziako piraguisimo klubeko kidea, bertan izandako bizipenez berba egingo du 2009ko urtarrilaren 2an, arratsaldeko 19:30ean Plentziako Gofñi Portal Kultur Etxean.

## LEMOIZTARREN ERREZETA LIBURUA

Abenduaren 12an burututako tailerlean lemoiztarrek atondu zituzten Gabonetako errezetakaz liburua osatu du Kultur Etxeak. Liburutegian eskuragarri egongo da kontsultatu gura duenarentzat.

## URDULIZ

### Hilerri eta haur-eskola barria 2009ko aurrekontuetan



1.200.000 euro emango dituzte kanposantu barrirako

**Abenduaren 9an** onartu zituzten Urdulizko Udalean 2009ko aurrekontuak EAJ eta PSEren aldeko botoagaz eta PP, EB eta EAren abstentzioagaz. Guztira zortzi milio euroko aurrekontua onartu dute; horretatik, herena baino gehiago inbertsioerarako erabiliko dute. Kanposantu barria, haur eskola, lan-brigadetarako nabea, Gazteleku eta haur-jolasak dira datorren urterako egitasmo garrantzitsuenetako batzuk. Honez gain, 150.000 euro erabiliko dituzte arazo ekonomikoak dituzten fami-

lientzako, aldi baterako lanpostuak sortzeko. Kultura arloan, Kultur Etxeko programazioa martxan jartzean joango da inbertsiorik indartsuena. Honez gain, metroa lurperatzeko, joan den urtean onartutako diru-poltsa berbera erabiliko dute, 2008an ez baitira lanak hasi.

Bestalde, Urdulizko Hirigintza Sozietateak aurreratu duenez, babes ofizialeko etxeak egiteko proiektu bi erredaktatzen hasiko dira 2009 urte hasieran, 18 etxebizitzakoa bata, eta 32koa bestea. ○

# Abe. 19 - Urt. 23

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **Carlos Garcia Yela, Alberto Robledo Blanco eta Pilar Ruiz Ruiz.** Erromoko erakustaretoan, abenduaren 30era arte.

### LEMOIZ

► **Fruta arbolen inausketa erakustaldia.** Urtarrilaren 3an, Ugarte aurreko baserrian, 10:30ean.

### GORLIZ

► **Ananpurrekin konprometitua.** Urte bukaera arte, erakusgelan.

### LEIOA

► **Ipuinetako click panpinak.** Abendutik 2009ko urriaren 25era, Kultur Leioan.

## MUSIKA

### GETXO

► **AC/DC.** Abenduaren 28an, Getxo Antzokian, 22:00etan. Gonbidapenak: El Corte Ingles

### LEIOA

► **Amar Sundy, Blues Jazz zikloa.** Urtarrilaren 16an, 22:00etan, Anbigu aretoan.

### SOPELANA

► **Uribe Bazterra Musika Bandaren Kontzertua.** Abenduaren 27an elizan, 20:00etan.

### URDULIZ

► **III. Gospel zikloa: The Upper Room.** Urtarrilaren 2an, 19:30ean.

## ZINEMA

### BARRIKA

► **Musikagaz olgetan.** Abenduaren 22, 23, 27 eta 29an, 11:00etatik 13:00etara, Udaletxean.



Karabas antzezlan, Golden Apple Quartet taldea

### ► Antzerkia

#### Haur Antzerkiaren XI. Erakustaldia euskaraz

Gabonetako oporretan umeez badute zereginik Leioan. Euskaraz Haur Antzerkiaren XI. Erakustaldia izango da, abenduaren 26tik 30era bitartean. *Karabas* katu botaduna ipuinean oinarritutako musikala eskainiko du Golden Apple Quartet talde euskaldunak lehen egunean, 26an. Kataluanatik iritsiko dira antzerki talde bi: Teatre Nu taldeak antzetzuko du *Joanen ilargia 27an* eta *Baserriko saltsa* La Baldufa taldeak 28an. Azken egun bietan, barriz, beste euskal talde bi arituko dira: *Hire zain* antzetzuko du Gor produccionesek 29an eta *Munstroak akatu* Teatro Mutantek 30ean. Sarrerak 4 euro balio du, eta saioak 18:00etan izango dira, igandekoa izan ezik, hori 12:00etan egingo dute.

• Non: Kultur Leioan • Noiz: Abenduaren 26tik 30era

### LEIOA

► **XV. Film Laburren irabazleak.** Urtarrilaren 20an, 20:00etan, Kultur Leioako Auditoriumen.

## ANTZERKIA

### BERANGO

► **Pailazoak. Azkona taldea.** Abenduaren 23an, pilotalekuan, 18:00etan.

### GORLIZ

► **Autodefentsa ikastaroa.** Urtarrilaren 9an eta 10ean, erakusgelan.

### LEIOA

► **Ipuin kontalaria.** Abenduaren 23an eta urtarrilaren 2an eta 3an, 18:00etan, Anbigu aretoan.

### URDULIZ

► **Kartoi Biraka.** Urtarrilaren 11n, 18:00etan. 3 euro.

## BESTEAK

### GORLIZ

► **Tailerak eta kirol zirkuitua.** Abenduaren 26an, goiz eta arratsalde, pilotalekuan.

### URDULIZ

► **Ikastaroa: Femitatearen labirintoan.** Urtarrilak 13, 20 eta 27.

### LEMOIZ

► **Gabonetako kirol parkea.** Abenduaren 20an eta 21ean, Armintzako pilotalekuan.  
► **Ikusi Makusi.** Abenduaren 26an, 19:30ean, Urizarko jolastokian.  
► **Poteo euskalduna.** Urtarrilaren 16an, 19:30ean, Kultur Etxe aurrean.

### BERANGO

► **Hip Hop eta Street Dance ikastaroa.** Abenduaren 23an, 11:30etik 13:00etara, Santa Anako Kultur Etxean.

### ERANDIO

► **Komiki Lehiaketara aurkezteko epea.** Urtariletik apirilera arte.

### GETXO

► **Getxolandia.** Areetako Geltokia eta Santa Eugenia plazetan, urtarrilaren 5era arte.

### PLENTZIA

► **Haur parkea.** Abenduaren 26an eta 27an, pilotalekuan.

### GORLIZ

► **Zaldien heziera erakustaldia.** Abenduaren 28an Ondargane parkean, 12:30ean.  
► **Gabonetako haur parkea.** Urtarrilaren 2an, pilotalekuan.

### LEIOA

► **Perkusio ikastaroa.** Urtarrilaren 12tik aurrera, astelehenero. 25 euro.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 94 460 90 31  
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



# Zorionak guri!

Hamar urte bete ditu esku artean daukazun aldizkari honek. Urtebetetze borobil hori ospatzeko, ekitaldi xume bat antolatu genuen Algortako Kasinoan. Bertan lagunak batu genituen, hurbilekoak. Ardo gozoagaz zintzurak bustitzeaz gain, UK 10 URTE proiektzioa ikusteko aukera izan genuen hara batu ginenok. Irudi eta hitzen bitartez, gure orrietatik pasa direnak gogoratu genituen. Laster, bideoa sarean ikusteko aukera izango duzu. Aurrerago izango duzu horren barri.

Argazkiak: **Asier Mentraka**





## Villamonte

### baserria

Sinestezina badirudi ere, argazkian ikusten duzuen Villamonte (Algorta) da. Gaur porlanez betea dagoena, sasitzak eta belarrak beteta zegoen garai batean. Argazkikoak Tomasa Serrano, Joseba Geijo eta azken honen arreba dira. Ez dakigu atzeko hori euren etxea den ala ez, ezta argazkia zein urtetakoa den ere. Protagonisten janzkeragatik, aspaldikoa dela esan daiteke, mende hasierakoa, agian. Ikusten duzuenez, garai hartan gona ez zen emakumezkoen kontua.

[berbetan]

Astebete geratzen da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako; Iratxe Ibarra (Markina-Xemein, 1974) eta Onintza Enbeita (Muxika, 1979) umoretsu eta bromak egiteko moduan dira, oraindik ez zaie urduritasuna nabari. Finaleko emakume bakarrak dira, orain urte bi legez; adiskidetasuna eta konplizitatea agerikoa da bien artean, aspaldiko lagunak dira eta. Zaila ikusten dute aurten irabaztea, inork ez du-eta ezer barkatuko, denak lehenengo izateko gogotsu bueltatu dira-eta. Eurentzako txapela bada BECen egotea, eta elkarrizketa irakurriz jakingo dugu hitzotako aurreikuspenak bete ote diren. Aurrera begira, ordea, ate-joka indartsu ei datoz gazteak atzetik, neskak batez ere, laster ikusiko dugulakoan txapel azpian emakumea.

# Onintza Enbeita eta Iratxe Ibarrra

**Emetik BECera**

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Emakume bi finalean, aurrekoan ere zuek biak bakarrik egon zineten.

O—Onenak garelako! (kar-kar). Ez, serio. Aurten neska bi bakarrik gauz finalean eta bi baino gehiago inoiz ez dira izan. Iratxe izan zen finalera heltzen lehenengo neska, Oihane Enbeitak segitu zion urte batzuetan, baina orain erdi-utzita dauka txapelketa kontua, eta ni ere egon naiz azken bi hauetan. Baina aurten sei neska egon dira finalerdietan eta orain arte inoiz ez dira egon horrenbeste; horri ere begitu behar zaio. Txapelketako eskaparatea BECekoa baino handiagoa da, eta pozik egoteko motibo asko dago.

I—Hori da, finalerdietan heren bat neskak izan gara, nahiz eta bi baino ez pasa, hor atean geratu dira bizpahiru. Jone Uri a eta Miren Amuriza Euskal Herrikora sartuko dira, Oihana Bartra ere hor inguruan dabil. —Ikus daiteke, bai, atzetik gazte asko datorrela, eta horietatik asko, emakumeak direla.

I—Bai, atzetik datozenen artean destakatzten dutenak Bizkaian neskak dira.

—Horrek esan gura du urte batzuk barru emakume gehiago egongo dela finalean?

O—Duda barik. Prest egon behar dugu beste neska batzuk ikusteko finalean gure ondoan, edo gu entzulegoaren artean gaudela. Finalean zortzi bakarrik kabitzen dira, atzetik ate-joka gogor datoz, eta guk ere gureari eusteko lan egin beharko dugu; bere alde onakaz eta txarrakaz. Lau urte ez nuke esango, hemendik urte bira ikusten dut finalean neska bi baino gehiago, eta gainera, ez dut ikusten gatz izango denik. Aukerak hor daude, eta aurten bost pun-

**“Hurrengo finalean ikusten dut neska bi baino gehiago, eta gainera, ez dut ikusten gatz izango denik”**

tura geratu dena zergatik ez da geratuko urte bi barru bost puntu aurretik?

I—Nire ustez urte batzutarako emakumeen presentzia aseguratuta dagoela finalean. Gu ez bagara sartzen be, beste bat edo bi hor egongo dira. Lau-bost egongo gara

hor, urte batzuetan finalean sartzeko moduan.

—Eta aurten txapel azpian emakume bat izango da?

I—Hori bai gatz (kar-kar). Beste batzuk hor daude fuerte.

O—Unai txapelketa oso ona egiten dabil, apur bat sententziatuta utzi zuen BECeko asuntua Erromon. Xabi Paya ez da barkatzera egongo, harek ere duela urte biko lorpena defendatu gurako du, eta Igorrek ere berea erakutsiko du. Nik uste gure alde daukaguna, galtzeko ezer

ez dugula da, eta eurek galtzeko zeozer daukatela. Hortik aurrera zer pasa litekeen ez dakigu. Uste dut gure umiltasunean onartu behar dugula gatz daukagula txapela irabaztea. Gure txapela beste bat izango da, han egotea biok.





I—Bai, Unai eta Igor egon ez direnengan ematen zuen besteok egin genezakeela zeozer, baina orain ez dut ikusten gu euren kontra egiten. Pasa liteke guk egun ona eta eurek txarra izatea, Unai oso irregularra da, eta badauka bajoiaren bat; baina guk oso egun ona eduki beharko genuke. Beraz, ikusten ditut Unai, Igor eta gero Xabi hor, egun oso ona badauka, goiko punta batzuk jotzen baditu... baina oso gazta da.

O—Nik uste dut orain lau urtetik hona aldatu dela batez ere Unai eta Igorrez gainera beste bertsolarien jarrera. Hau da, lehen denak zihozten hirugarren egitera eta orain, nahiz eta jakin gogor bueltatu direla, jendea joango da lehenengo egitera. Nahiz eta ez egin lehenengo, jarrera aldaketa horrek finala asko aldatu leike. Eta politagoa izango da. I—Egun normaltxoa daukana igarri egingo da, eta atzean lotuko da.

—Onintza, zuk aurrekoan agurrean bota zenuen “Gora Euskal Herri emea!”, nori dedikatuko diozue azken agurra?

O—Nik Fleuryra bidaliko dut seguruenik; han dago Alaitz Areitio, gugaz bertsotan ibilitako neska, Fleuryko kartzelan ama izan dena, orain hilabete egon nintzen beragaz eta bie janziko zaie nire agurra, hori daukat buruan. Irabazi nahiz zortzigarren egin, txapelketa honetan hori daukat argi.

I—Nik azken agurra ez dut eruten, lehenengo bai pentsatuta eruten da, baina nik azkena, depende zein postutan geratu zaren askotan horregaz lotzen dut, beraz ez daukat ezer pentsatuta.

—Txapelketatik aparte bizi da bertsoa...

O—Txapelketatik aparte uste dut bertsoa nahiko indartsu dagoela. Baina txapelketa balio du, batetik, urte osoan saioetara etortzen ez den edo oso zalea ez den jendea arri-metako; eta bestetik, zaleak direnei bertso on-on batzuk eskaintzeko. Oreka topatu behar da. Txapelketa ondo daude, eskaparate ona dira jendeak zer dagoen ikusteko. Beste alde batetik, ez da ahaztu behar urtean zehar saio asko dagoela, eta nik uste osasuntsu dagoela bertso orduan ere, agendetatik kanpo ere saio asko daude, eta jendea

joaten da entzutera eta parte hartzera.

I—Ados, gehitzeko bakarrik hori, bertsoa osasuntsu dagoela, zaleei eskertzeko eta oso zaleak ez direnak arrimatzeko ere ondo dago. Baina gero guretzako inportanteagoa da edo gusturago ibiltzen gara behintzat, txapelketatik kanpo. Urte birik behin izaten dugu eta nahikoa, ez dugu gehiago ere gura. Nik neuk gurago dut afari batean,

## “Onartu behar dugu gatz daukagula irabaztea; gure txapela beste bat izango da, han egotea biok”

bazkari batean edo beste saioaren batean. Txapelketa eskaparatea da, baina askoz inportanteagoak izaten dira urtean zeharreko saioak.

—Azken urteotan aldatzen ari da bertsoaren mundua, saio bereziak egiten dira musikariakaz, abesti ezagunen doinuakaz... Zuok biok Emetik Bertso-Kabareteko partaide izan zarete Oihane Pereagaz batera.

O—Egin genuen gure estilora, desmadre pixka bat. Horrelako ekimenak sortzea normala da. Atzera begira jarri eta ikusten da “Ez dok Hamairu”-tik hona zenbat aldaketa eman den, eta zein estilo izan diren nagusi, konturatzen gara gizarte aldaketakaz batera ere aldatzen dela jendea. Bertsotan berdin da, gu ez gara bizi gizartetik kanpo, Bertsozale Elkartek lan handia egin du

## “Txapelketa eskaparatea da, baina askoz inportanteagoak izaten dira urtean zeharreko saioak”

dagoena mantentzeko, dokumentazio zentroan batu dute doinu pilo bat tradizioari eusteko; baina horrek ez du esan gura gu aldatzen ez garenik, eta gauza barriak edo molde barriak egiteko beharizanik ez dugunik. Gauza naturalak dira, eta eman behar zaie momentuan daukaten garrantzia. Adibidez, bertso-kabareta egin genuen,

gogoia geneukan gauza batzuk esateko, emakume garen aldetik eta pentsatu genuen horrek esateko gure moldea izan behar zela hori. Bertsoak bere modu tradizionalan hor jarraitzen du, eta gauza bereziek egiten dituzte ekarpenak, eta sasoi barri baten aurrean esateko dagoena esan.

—Arrakasta lortu zenuten, gainera.

I—Bai, baina guk biok ez genuen espero.

Oihane baikorragoa zen, guk pentsatu genuen inguruko jendeagaz lotuta baietz, horrela hasi ginen; baina gero ez genuen espero hainbeste saio edukitzea, eta hain urrunetik deitzea. Urte eta erdian 69 saio egin genuen. Amaieran ere, despedidarako eguna jarrita genuen, baina batzuk ez ziren enteratu eta deitzen jarraitu zuten; ezetz esan behar izan genuen, dagoeneko ekimena amaituta zegoelako.

—Iratxe, zu Kuban egon zara aurten beste bertsolari batzuek, eta hango repentista batek kanta duzu. Zelan esperientzia?

I—Iaz egon ginen lehenengoz eta eurek egin genuen saio bat, Habanako Vedado auzoan. Aurten Aberri Egunean kantatu zuen gugaz repentistetako batek han bertan, eta ondoren telebistara eroan gintuen, hemengo Hitzetik Hortzera moduko pro-

grama batera. Bertsolariak hemen lehen ziren modukoak ziren, adinekoak eta base-ri edo landa ingurukoak. Diferentia da, bai. Repentistek kantatzen dute, baina tar-teka musikariak ere sartzen dira.

—Baina bertsoagaz bakarrik ez da bizi pertsona, eta zeuen ogibideak ere badituzue.

O—Bai, bai... Eta gurago dut. Oroko-

rrean arte mundutik bizi gura baduzu, ohitu behar zara gauza askotara. Zure burua saltzen jakin behar duzu, eta egin behar duzu lan asko, zure eskutan ez dagoen lana. Afizioa ofizio bihurtzen denean, gauza txar asko topatzen zaizkio. Euskara irakasten nabil, eta zenbait hedabidetan kolaborazioak egiten; gurago dut horrela, bertsoak ondo pasatzeko, disfrutatzeke eta jendea ezagutzeko bide legez. Badakit azkenean kokoteraino amai nezakeela derrigorrezko bihurtuko balitz. Horrela gehiago disfrutatzen dut.

I—Neuk ere gurago dut bertsoa afizio moduan. Badabilza batzuk horrela, baina eskatzen du txapelketan puntan ibiltzea, bestela ezin duzulako egin gero hainbeste saio. Gogo eskasagaz zabilzanean ere, ezin ezetz esan ogibidea delako. Karga bihur liteke.

—Amaitzeko, eta finalera bueltatuz, BEC oso handia da, eta berotu behar...

I—Badaukat beldurtxo bat, nola ikusiko den publikoa handik. Arriaga eta Euskaldunara ohitu naiz, oso leku eleganteak dira, beroak, jendea gertu sentitzen da, itxiak dira... kantatzeko oso goxak niretzat. Baina BECen Euskal Herriko finala ikusten, ez nuen sentitu berotasun

## “Gurago dut bertsoak afizio moduan, ondo pasatzeko, disfrutatzeke eta jendea ezagutzeko bide legez”

hori, izan liteke hotzagoa.

O—Nik ez. Jendea joaten da finalerara beste disponibilitate batek, esker oneko egongo da, pankartak jar litezke, jendeak

beste jarrera bat izan dezake, eta horrek laguntzen du giroa berotzen. Gainera lasai, gradakaz eta, ez da hain handia ikusten, ez du hain handia ematen, Iratxe.

I—Kontua da niri formato hori ez zaidala gustatzen, frontoi antzekoa da, eta ez naiz batere eroso egoten. Publikoa ikusten dut urrunago, hotzagoa da lekua. Ikusteko ere hobeto aretoa, butaka onak eta ez plasti-

kozko edo egurrezko kutre horiek.

O—Niri hori gustatzen zait.

I—Bai, zuri otartekoa eta tragua, ezta? (kar-kar). ○

 **KONTXI**   
**ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

*Adituak gara,  
Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztaietan!!*

*zorionak  
eta  
urte barri on!*

**Alangobarri 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93**

## GABONETAN

- Tolosako *Eceiza* eta *Gorrotxategi* turroiak
- Bilboko Correos kaleko turroia (Eladio Ibañez Coloma)
- Ardoak eta txanpainak



Gorlizko itsasargia

## “Gure bazterrak”

Itsasoaren beste aldetik etorri zen gurera orain hiru urte Eduardo Camino; Kubatik, hain zuzen ere. Irakasle-eskolan ibili ostean, argazkilaritza ikasketak egin zituen Kubako Kazetaritza Batasunean. Uribe Kostan, argazkiaren munduagaz zerikusirik ez duten gazetan beharrez ibili bada ere, ez du zaletasuna alde batera utzi. Gure bazterretan kuxkuxeatzen ibiltzea du gustuko Caminok; paisaia guztietatik Ibaizabal Itsasadarrak iluntzean eskaintzen diona du maitean. “Maite ditut maite gure bazterrak lanbroak ezkututzen dizkidanean”.

Argazkiak: **Eduardo Camino**



Erandioko ontziola



Meroño, Amurrio



Piskerra mendia (468m); Bardeak, Nafarroa



Gaztelugatxe, Bizkaia



Otsagi, Nafarroa



Belagua Otsagitik, Nafarroa



Leioako Artaza parkea, Bizkaia




Bilbo, Bizkaia



Bilboko Isozaki domeak, Bizkaia



Algortako Portu Zaharra, Bizkaia



Eltzegoko Marques del Riscal arandegia, Araba



Hegaztien migrazioa



Ibaizabal itsasadarra, Bizkaia



Guggenheim museoa, Bizkaia

I

# Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 94 430 23 45  
Telletxe 1 T: 94 460 27 41

## Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10  
T: 944910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

# GAVRKO



GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 94 4607084

[zinema]

## Lapiko arteko komedia

Aizpea Goenagak zuzendu eta idatzitako lehen film luzea: **sukaldeko kontuak**



Argazkian, Aizpea Goenaga. Filmaren gaineko informazio gehiago: [www.sukaldekontuak.com](http://www.sukaldekontuak.com)

**Orain dela** hilabete inguru, azaroaren 17an, hasi zen *Sukalde Kontuak* pelikularen filmaketa. Aizpea Goenaga (Donostia, 1959) aktoreak eta gidolariak zinemarako idatzi eta zuzendu duen lehen film luzea da; zuzendari lanetan eta zinerako liburuaren gidoi-egokitzapenean (berbarako, *Zeru horiek*, 2005) jardun izan du donostiarrak, baina hau da bere lumatik jaio den, eta begiradak gidatzen duen lehenengo lana.

Espainiako Kultura Ministerioaren ICAAren (Ikus-entzuteko Arteen eta Zinematografia Institutua), ETBren eta TVEren milioi eta erdi euroko dirulaguntza eskuratu du Goenagak eta Angel Amigok Zurriola Grouperako egindako ekoizpena izango da. Euskaraz filmatuko den lana (eta gaztelaz azpitoludun jatorrizko bertsioa) datorren urteko maiatzean estreinatzeko asmoa dute.

Aktoreei dagokienez ere, aurpegi ezagunak dira protagonista *Sukalde Kontuak* pelikulan, besteak beste parte hartzen dutenak dira: Barbara Goenaga, Isidoro Fernandez, Mikel Losada, Aitziber Garmendia, Galder Perez, Roberto

Alonso, eta Lander Otaola. Bigarren plano batean agertzen diren aktoreak eta protagonistak ere ez zaizkigu arrotz egingo: Ramon Agirre, Ane Gabarain, Asier Hormaza, Marivi Bilbao, Aitor Merino, Juan Mari Arzak, Martin Berasategi etab.

Izan ere, sukaldaritzaren eskola batean gertatzen da istorioa, eta egileak ipini dion etiketari jarraiki, endredoeko komedia da. Sukaldaritzaren irakasle ipurterrea, ikasteko gogo gutxiko eta dirua erraz irabazi gura duten ikasleak, Arzakek ipinitako azterketa egunean sukaldeko kiratsa... Horren guztiaren inguruan sentimendu-harremak

### «Sukalde kontuak filma datorren urteko maiatzean estrenaitzeko asmoa agertu dute»

nak, belaunaldi arteko gatazka, inmigrazio arazoak... *“Satira sozial-politikoak da”* Goenagaren esanetan, euskal belaunaldi jakin batentzat sukaldaritzak daukan garrantzia azalarazi gura du. Donostian (kanpo-irudiak) eta Errenterian (barrukoak) grabatzen dihardute. o

## Rocka. Bilbon. 30 urteotan

Alvaro Heras getxoztarrak *Lluvia, Hierro y Rock&Roll* liburuak kaleratu du



Informazio gehiago: [www.myspace.com/historiarockbilbao](http://www.myspace.com/historiarockbilbao)

**Arrazoi** duzu irakurle, musikari begirako orrialdea da hauze eta liburuaz bete dugu oraingoan; baina musikari estu-estu lotuak dira den-denak, zin dagizugu!

Alvaro Heras Gröh getxoztarrak *Lluvia, Hierro y Rock&Roll. Historia del rock en el Gran Bilbao (1958-2008)* liburuak plazaratu du. Taldeak, diskoak, irrati programak, fanzineak eta aldizkariak, kontzertuak etab. biltzen ditu liburuak egileak adierazi duenez. Platero y tu taldetik hasi eta Los Mitos, Dinamita Pa'los Pollos, Fito, Atom Rhumba eta Eskorbutorainoko ibilbidea marrazten du. Musikari, bultzatzaile, zale-

tu eta kazetariari egindako 150 elkarrizketatik abiatu du Herasek lana, eta 400 argazki kartel eta kontzertuetarako sarreraren irudiak bildu ditu. “Azken mende erdiko gazte bilbotar andanaren aisialdirako ohiturak” islatzen ditu liburuak: 60. hamarkadako goateke eta goizaldeko jaiak, hurrengo hamarkadako festa-aretoak, 80-90 hamarkadako taberna eta lokal autogestionatuak eta XXI. mendeko jaialdi erraldoiak... Ziurrenik *Lluvia, Hierro y Rock&Roll*-eko (25 euro) 460 orrialdeetan askok ikus dezake bere burua islatuta. Liburuak Brixton denda eta GONG Diskos-en dago salgai. o

## diskoak

**Olentzero**  
Oskarbi  
Elkar



Eguberriko kantua eta doinuak batzen zituen *Olentzero* diskoa berargitaratu du Elkar argitaletxeak. 1975ean kaleratu zen diskoko abestiak bermasterizatu eta gaurkotu dituzte; horiez gainera 5 kanta barriz osatu dute Oskarbiko kideek disko barria. 1966an sortutako taldea 1981ean desegin bazen ere, ondino ez da desagertu.

**Hipokrisia eta faxismo...**  
Des-kontrol  
Baga-Biga



Faxistatzaile eta arrazistatzaile jotzen zituzten esanek kontra eginez, lan barria plazaratu du Des-Kontrol taldeak *Hipokrisia eta Faxismoaren aurka* diskoa, hain zuzen ere. Euren kontrako boikotaren aurka egindako lanean Fernando (Kuraia), Fermin Muguruza, Gari, Drogas, Iñigito eta Nik (MCD) lako musikariak parte hartu dute.

**Piratak**  
Pirritx, Porrotx eta Mari...  
Elkar



Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek Piratak lana argitaratu barri dute. Bertan 20 kantu eta beste horrenbeste ipuin batu ditu hirukoteak, eta musikari ezagunen laguntza izan dute Xabier Zabala, Iluleitx harilaukotea, Igor Telletxea, L. M. Moreno, Oreka TX, Mendizabal, Aitor Gorosabel (Su ta Gar), Jesus Cifuentes eta Alberto Garcia (Celtas Cortos) etab.

## poemak >

Patti Smith



Abeslari legez da nazioartean ezagunagoa Patti Smith (Chicago, 1946), baina zaletuek jakin badakite “punkaren poeta” bere musikari

ibilbidearen hasieratik eta paraleloki literatura eta arte sorkuntzan ere badiharduela. Oraintsu eskaini du Gasteizen kontzertu eta poesia errezitaldia Chicagokoak, eta horren albotik Bassarai argitaletxe arabarrak Benjamin Prado idazleak atondutako Patti Smithen poema hautatuak batzen dituen liburuak argitaratu du. Bere ibilbidean zehar gerora hainbat punk-rock taldetan eragina izan duten dozena bat disko plazaratu du musikariak, eta bitarte horretan, poema edota idazkiz osatutako beste dozena bat liburu ere kaleratu ditu. Bassaraiaren ekimenez bere poesia hurbilago dugu orain.

Informazio gehiago: [www.bassarai.com](http://www.bassarai.com)

## liburuak >

Entzun!

Durangoan aurkeztu zuten 144 orrialdetako Entzun! liburuak. Entzun! musika aldizkariaren 58. zenbakia badara ere, liburu formatoan argitaratzen lehenengoa da. Liburuaren alboan Euskal Herriko 18 kantugaz osatutako disko bilduma ere eskaintzen dute. Liburuan urteari erreparoa egiteaz gainera, bestelako erreportaje, musikari eta musikagintzari buruzko iritzi artikulua andana, argazki bilduma etab. jaso dituzte.

Informazio gehiago: [www.entzun.com](http://www.entzun.com)

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Etxera  
eroaten dizugu  
**gasoleoa**

Txartel hau aurkezten  
baduzu 3 euroko  
deskontua edukiko duzu  
zure eskarian

Getxo eta Berango artean  
Tel: 94 430 15 00

etorri  
eta  
ikusii!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

**GORLIZ IRRATIA**

Urte Kostat Irratia 107.8 FM

www.gorlizirratia.com

[liburuak]

## Igelaren itzulpenak

Tolkien, A. Christie, Werfel, Somerset Maugham, Natayan, Mondiano eta Sait-Exupery **euskaraz**

**Badira** 20 urte Xabier Olarra, Joseba Urteaga eta Jose Manuel Gonzalez tolosarrek Igela argitaletxea sortzeko ametsa abian ipini zutenetik, eta hurrengo urteko abenduan beteko dira 20 urte argitaletxeak lehenengo liburu biak argitaratu zituenetik. Igelako arduradunek diotenez, "argitaletxearen ezaugarri nabarmenena mundu osoko literaturako obrarik esanguratsuenetako batzuk hautatu, eta haien itzulpenak argitaratu emateko asmoa zen; eta hori egin dugu gehien bat gaur arteko ibilbidean". Horren lekuko dira gaur egun arte Igelak plazaratu dituen 50etik gorako itzulpenak. Nazioarteko idazle esanguratsuen lanak euskararen

«**Hobbita, Hilketa lokartua, Bikarioetxeko hilketa, Gaueko hegaldia, Malgudiko ipuinak...**»

ondarera ekartzea izan da argitaletxearen helburu nagusietako bat, ez bakarra. Helburuari fidel izanik, aurtan ere ez dute huts egin, eta azken bi hilabeteotan zortzi lan euskaratu dituzte; gainera, izen handiko idazleen lan esanguratsuak direnak; hain zuzen hurrengoak: Juan Luis Agirrek euskaratu duen *Batsilerren eguna* (Franz Werfel, 1928), Joxe Mari Berasategik itzulitako *Malgudiko ipuinak* (R.




Antoine Sait-Exupery (1900-1944)

K. Narayan; bilduma 1995), Pello Lizarralde euskaraz eman duen *Udaberri alua* (Patrick Modiano, 1993), Xabier Olarrak euskarara itzuli duen *Sei istorio* (W. Somerset Maugham; narrazioak: "Euria", "Howard Barnarden gainbehera", "Gutuna", "Zirkunstanzien indarra", "Gizatasuna" eta "Lotojalea"), Koldo Izagirrek *Gaueko hegaldia* (Antoine Sait-Exupery, 1931) liburuaren itzulpena, Sergio Ibarrolak eta Xabier Olarrak euskarara ekarri duten *Hobbita* (J. R. R. Tolkien, 1937) eta Itziar Diez de Ultzurrun eta Xabier Aristegietak, hurrenez hurren, euskarara itzuli dituzten *Bikarioetxeko hilketa* eta *Hilketa lokartua* (biak Agatha Christie; hurrenez hurren 1930 eta 1976). ◦

Informazio gehiago: [www.igela.com](http://www.igela.com)

liburuak



**Orain ezin naiz hil**  
Xabier Amuriza  
sarean ipini du idazleak

Orain ezin naiz hil nobela, Joan ziren bildumako bigarren liburua, sarean, bere blogean ipini du Xabier Amurizak. *Dinosaurioak horizontean* lehen zatiaren jarraipena da nobela hau, bere haurtzaroko eta gaztaroko bizipenak hartzen ditu oinarri.

[www.amurizablogxabier.com](http://www.amurizablogxabier.com)



**Jorge Oteiza. Jenio hutsa**  
Nere Lujanbio  
Elkar

Jorge Oteiza (Orio, 1908-Altzuza, 2003) saltsa askotako buruntzalia izandako artistaren euskarazko biografia idatzi du Nere Lujanbiok. Lanean artistaren hainbat alde aurki daitezke: bere eragina, eskultura esanguratsuen argazki komentatuak, bizipenak...

[kirola]

## Euskal Herriaren alde!

Hilaren 13an, ESAITen (Euskal Selekzioen Aldeko Iritzi Taldea) deia erantzunez, "Euskal Herria, nazio bat, selekzio bat, federazio bat" apustuagaz bat egiten dutela adierazteko hainbat kirolari eta herritar argazkiak egiteko batu ziren Erromon (70 bat lagun), Algortan (70 bat lagun), Leioan (40 lagun inguru) eta Erandion (30 lagun gutxi gorabehera). Momentuz, eskualdean *Euskadi* izendapenaren aldeko elkarteratzerik egin delako barririk ez dugu izan. Horrenbestez, egindakoen irudiak dituzu ondorengoak.



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol moda



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris S.L.** SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

☎ 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**Willy Uribe** > idazlea

“Aukera eman didate eta baliatu behar; idazten jarraituko dut, poz-pozik”



Willy Uribe

**Willy Uribe Zarrabeitia berangoztarra izen ezaguna da askorentzat. Surf argazkilaritza aritu da urte askoan eta artikuluak idatzi ditu kirolari buruzko hainbat aldizkaritan. Ez du horren ezaguna idazle aldea, baina oso kritika onak jaso ditu, eta irakurleek harrera polita egin diote. Laster batuko ditu surfari buruzko bere hiru nobela laburrak liburu bakarrean. Orain aste gutxi, barriz, azken nobela aurkeztu du, *Revancha*.**

—Mendekua, negozio ilunak eta hilketak, erritmo geldiezinean... Hori dena biltzen du *Revancha* lanak.

—Eguneroko kontuak dira. Kasu honetan fikziozkoa da, kontalariaren iragazkitik pasatu da. Erritmoa azkarra da, bai, irakurleak harrapatzen saiatu naiz, argumentutik aldentu barik; horrelako erritmoa dut gustuko idaztean.

—Miguel Montes da pertsonaia nagusia.

—Bere lagunak nahasten saiatuko da futbito partida bat jokatzeko, eta haren bitartez, bere helburuak gauzatzeko; batere onak ez dira helburuok. Madrilgo urbanizazio pribatu bateko jabeen eta langile hegoamerikarren arteko partida izango da. Tentsioa sartzen dut, argumentua nahasten dut partidaren bidez, eta pertsonaia batzuen miseriak agerira ataraz.

—Errebelazio Egileari Saria eman dizu liburu-denda kate batek aurten, *Se que mi padre decía* lanari esker; azken nobela aurkezteko bultzada ederra?

—Bai, poz-pozik nago. Lan ona aitortzen badizute, jendeak irakurtzen badu eta gustuko badu, ondo baino hobeto. Pentsan batez ere, oso kritika onak jaso ditut nobela horri esker. Idazten jarraitzeko indarra ematen

dute, bai noski! Halere, eta kritika onak egingo ez balizkidate ere, idazten segituko nuke. —Surfari buruz ere idatzi duzu, gustuko duzun kirola.

—Egia esan, poesia eta kontakizun laburrak idazten hasi nintzen, 1986an argitaratu nuen *Cuentos revueltos* Getxoko Udalagaz. Surf praktikatzan nuen, eta surfariari argazkiak ateratzen hasi nintzen ondoren. Argazkiak eta testuak elkartu nituen, lanagatik. Baina narrazio aztarna ez dator surfetik; surfak aberastu du.

—Argazkilaritza gisa ezagunagoa zara agian?

—Bai, 90eko hamarkadatik orain urte bi

**«Argazkigintzaren igeltsero txikia izan naiz, asko gozatu eta ikasi dut»**

arte, nire ekoizpen gehiena surf munduan izan da, entrenamendu ona. Baina azkenaldian askoz gutxiago egin dut arlo horretan, narratibari ekin diot gehiago, fikzioan. Beno, oraintsu eskatu dit lagun batek Acerotarrei buruzko erreportaje bati sarrera egiteko. Eurak izanda pozik egingo dut, noski. Baina argazkilaritza ofizioa izan da, pasioa baino. Argazkilaritza gutxietsi barik, baina argazkilaritza askoz hobeak daude ni baino; argazkigintzaren igeltsero txikia izan naiz, asko gozatu eta ikasi dut. Orain ere argazkiak egiten ditut, kamara konpaktu txiki bat erosten dut aldean, objektiboa aldatu behar ez den horietakoa, baina niretzako ateratzen ditut.

—Bestela, zertan zabilta?

—Beste nobela bategaz nabil dagoeneko, Bilbon kokatuko dut.

—Idazketan buru-belarri sartuta zaude, beraz?

—Aukera eman didate, eta horrela izanda, baliatu behar; hortan jarraituko dut, idatz dezakedalako, poz-pozik. ○



euskaraz bizi  
nahi dugunon  
herrira

Tutera-Gastelz 09  
martxoaren 26tik apirilaren 5era

16. korrika *æk*

izan zaitez  
korrika laguntzailea!

12 euroren truke Korrika laguntzailea izango zara eta bartelari esker abantailak lortu ahal izango dituzu



aldizkaria **etxean**  
jaso gura baduzu



**HARPIDETZA** > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....

Kalea & zenb.....Herria.....

e-mail.....Telefonia.....

**UK Uribe Kostako Aldizkaria** 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37

**Urtero**  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□



## MILAKA PERTSONEK BEHAR DUTE PREMIAZKO LAGUNTZA BIZITZEKO

Zure laguntzarekin, beharrezkoa duten laguntza medikoa eman ahal izango diegu.

Urtean 10€ emanda, kirurgia ekipo osoa bidali ahal izango dugu gerran dagoen herrialde batera, edo 400 umeri meningitisaren kontrako txertoa jarri.

Egin zaituzte  
Mugarik Gabeko Medikuen kide  
Deitu 902 15 15 07 telefonora  
www.msf.es



[norajoan]

## Sarrikobaso Itxaskiak

Kantauri itsasotik gure mahaietara



Maruja Rivas, Jose Julio Vega eta Silvia Vega Sarrikobaso Itxaskiak dendan

**Gabonak** direla eta asko eta asko dira azken asteotan menua erabakitzen ibili direnak. Itsaskiak, mahai gehienetako protagonista izaten dira. Horri buruz, asko dakite Sarrikobaso Itxaskiak haztegi lagunek. Maruja Rivasen gurasoek zabaldu zuten denda orain dela 28 urte. Eurak jubilatutakoan, Maruja bera eta Jose Julio Vega senarrak hartu zuten negozioaren kargu: "Orain nire alaba batu zaigu; familiak ohituragaz jarraituko omen du". Urtero-urtero ikaragarriko kolak sortzen dira Sarrikobaso kalean. Bezeroek badakite non aukeratu; izan ere, Kantauri Itsasoko produkturik onenak ekartzen dituzte: "Beti ez dugu lortzen, baina ahal dugun heinean, saiatu egiten gara". Otarraina, txamarrara, itsas-idia, txirlak, zigala, lanpernak, izkirak... ahoa urtzen zaigu askori berba

horiek entzunda: "Angula bila datozen hiruzpalau bezero ere baditugu; aurten 700 euroan dago kilo". Dagoeneko, eskari asko jaso dituzte: "Saiatzen gara eskariak azken asterako uzten. Badakigu bezeroek gauzak lehenagotik prestatu gura dituztela, baina guretzat oso zaila da Gabonak baino hiru aste lehenago prezioak zehaztea. Prezioak bikoiztu egiten dira". Gehienak betiko bezeroak badira ere, horien ohiturak aldatuz joan dira: "Lehen ezin genituen produktuak egosi; orain aldiz, denbora aurrezteko edo, dena egosita ematea eskatzen digute". Komunikabideek lau haizetara zabaltzen ari diren krisiaren eraginari buruz galdetu diogu Rivas: "Igarri dugu, batez ere jatetxe-ek egiten dituzten eskarrietan".

Sarrikobaso 13, ALGORTA  
Tel.: 94 430 53 40



ARTAZA ETXEA

jatetxea

- gosariak
- txuletoia • bakailoa
- arrain freskoa

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA



gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

# JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



BASALBO BASERRIA

## JATETXEA

ZORIONAK  
ETA  
URTE BARRI ON!

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI -  
GETXO

basalbobaserria@yahoo.com



**prentsa • aldizkariak**  
 GETXOKO KIROI PORTUA  
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
 ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- ISPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasorekin bat)  
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
 T: 430 22 13              T: 460 02 88  
 GETXO                      ALGORTA

**Usategi kafetegia**



Usategi parkea z/g,  
 Algorta

\*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

[horoskopoa]

URA

**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
 Urte osoa txokolata eta hanburgesak jaten eman duzu, eta orain dieta egiten hasi gura duzula. Badakizu Gabonak ez direla garai ona gutxi jateko. Amama haserretu egingo zaizu ez baduzu prestatu duen guztia probatzen.

AITZURRA

**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
 Kotxe barriak arazo asko eman dizkizu. Aste honetan tailerrera eroan behar izan duzu barriro ere. Agian ondo zaintzen ez duzulako da. Edo, beharbada, saldu zizun emakumeagaz berba egin beharko zenuke.

GARIA

**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
 Zergatik jartzen zara hain urduri? Arazoak lasaia hartzen ikasi behar duzu. Bikoteagaz berba egin, eta laguntza eskatu. Inor baino hobeto ezagutzen zaitu eta gomendio onak emango dizkizu ziurrenik.

META

**(Irailak 17 urriak 16)**  
 Sakelakoagaz nazkatuta zaude. Momentutik txarretan deitzen dizute. Badakizu, dei garrantzitsua jaso behar ez baduzu, etxean utzi edo itzal ezazu. Lasaia biziko zara.

OTSOA

**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
 Pentsatu dituzu datorren urterako promesak? Erretzeari uztea, kirol gehiago egitea ... tipikoegiak dira. Izan ausarta eta saiatu benetan aldatzea eskatuko dizuten asmoak aukeratzeko. Laguntza behar baduzu, lagunei eskatu.

HOSTOA

**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
 Lanera oinez joaten zarenetik, gusturago zaude lankideakaz. Goizeko haize freskoak behar bezala esnatzen zaitu. Gainera ez dituzu karabana amaigabeak jasan behar. Ez legoke txarto udabarrirako bizikleta eroatea.

LASTOA

**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
 Gaintzekoen gainetik dagoela pentsatuz, jarrera harroa duenean amorrua sentitzen duzu. Paso egiten ikasiko bazenu, beragaz zauden bakoitzean ez zinakeke su bizian ipiniko.

HAZIA

**(Urriak 17 azaroak 15)**  
 Familiako kide kutun bat urrutira joango zaizu. Hilabete batzuk bakarrik emango ditu kanpoan. Hala ere, asko botako duzu faltan. Extera heltzen denean besarkada handia eman.

ADARRA

**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
 Etxean leihotik begira ematen duzu eguna. Egia da eguraldiak ez duela gehiegi laguntzen, eta euria gorroto duzula. Baina badago zeregina: zinemara joan, tabernan garagardo bat hartu... Ez izan alferra, eta irten zaitetz kalera.

EGUZKIA


**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
 Hator, hator mutil etxera; gaztaina zimelak jatera. Ez duzu gabon gaua ospatzeko gogorik, baina badakizu etxera ez bazoaz gurasoak mindu egingo dituzula. Zergatik ezin dute ulertu Gabonak gorroto dituzula?

IRATZEA

**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
 Bizilagunez txutxu-mutxuka hastea asko gustatzen zaizu, baina zure bizitzaz berba egiten hastean haserretu egiten zara. Badakizu, ez egin besteei zuri egitea gura ez duzuna.

NEGUA

**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
 Erosketak egitera joaten zarenean guztia erosi gura izaten duzu. Ez dakizu aukeratzeko. Laster, beherapenak datoz eta gehiago erosi gura izango duzu. Hobe kreditu txartela etxean uzten baduzu.



**KOSKA**  
 irratia 108 FM

[www.koskairratia.com](http://www.koskairratia.com)

denborapasa

HITZ GURUTZATUAK

|    |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
|    | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 1  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 2  |   |   |   |   |   |   |   | ■ |   |    |
| 3  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 4  |   |   |   |   | ■ |   |   |   |   |    |
| 5  |   |   | ■ |   |   |   |   |   | ■ |    |
| 6  |   |   |   |   | ■ |   |   |   |   |    |
| 7  |   |   |   |   |   | ■ |   |   |   |    |
| 8  |   | ■ |   |   |   |   | ■ |   |   |    |
| 9  |   |   |   | ■ |   |   |   | ■ |   |    |
| 10 |   |   |   | ■ |   |   |   |   |   |    |

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Agiri berezia. 2. Usoak ugari igarotzen diren leku. Gipuzkoako matrikula zaharretan. 3. Sega-langileak. 4. Oinez mugitu. Nafarroako herria. Aezkoan. 5. Suari dario. ... Lopez Mendizabal, Tolosako euskaltzalea. Kontsonantea. 6. Sarrera. ... gaindi, mugaren gainetik. 7. Nafarroako monasterio ospetsua. Lapurdiko herria. 8. 500. Gipuzkeraz, tripazain. 9. Biloa. Bokala. Bat. 50. 10. Edo. Eraikin baten euskarri zut.

Goitik behera

1. Musika-jaialdia. 2. Guztiz ase. Kontsonante sabaikaria. 3. Alfer. Jitea, itxura. 4. Hego Europako estatu batekoa. 5. Gizon izena. Bizkaieraz, omen. Alfabetoko azken letra. 6. Lizarran barrena igarotzen den ibaia. Amerizioaren ikurra. Biamoko hiriburu. 7. Siziliako kolonia greziarra. Kontsonantea. 8. Kontsonantea. Irazia. 9. Gipuzkeraz usain. Ipar Euskal Herrian, era. Boroaren ikurra. 10. Askatasuna ekarri(ko) du.

Soluzioak

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | B | A | T | U | Z | A | V | L | A |
| L | I | A | V | A | E | L | I |   |   |
| A | Z | A | P | I | R | T | D |   |   |
| A | R | A | S | E | R | I | E | L |   |
| Z | A | G | U | M | A | E | A | T | V |
| T | A | K | X | I | K | E |   |   |   |
| A | R | I | A | L | I | B | I |   |   |
| K | S | E | A | L | A | R | I | A |   |
| S | S | A | T | E | G | I | U |   |   |
| A | S | T | E | S | T | A | M | A | N |



Bittor Egurrola

Algortako Biotz-Alai, 1953

Algortako abesbatzaren historian hiru etapa gutxienez bereiz ditzakegu. Lehenengoan (1923-27) gizonetako korua izan zen, Manuel Gainzaren (Juan Jose Gainzaren aita) zuzendaritzapean.

Argazkia, bigarren etapakoa da (1950-55). Durangoko Angel Uriguen apaizak, eliz zereginetarako (Gabonak, Aste Nagusia, herriko jaiak...) batez ere sortutako korua. Bihotz-Alai izena aldi honetakoa da, ez lehenagokoa. Esan daiteke San Nikolas elizako korua izan zela; zuzendaria eliza horretako organista zen. Koru mixtoa. Kontzertu gutxi batzuk ere eskaini zituen, baten bat Getxoko Udal Bandak lagunduta.

Hirugarren etapa, interesgarriena eta oparoena, gehiago ezagutzen duguna: Juan Jose Gainza (1966-89) eta Javier Oierzabal (1989-...). Eta zer egin mendeurrena heltzeko (2023)? Bada, bere kontzertuetara joan (laster izango dugu urteroko Bazkide Kontzertua), bazkide izan eta animatuz gero bertan kantatu, gaitasunik balego. o

Ezkerretik eskuinera, goitik hasita.

**Gizonetakoak:** Iñaki Landa, Patxo Jimenez, Patxi Camiruaga, Iñaki Gainza, Jose Juan Gainza, Jesus Lopez de Uralde, ??, Muruaga, ??, Chan Martin, Herrosilla, Chato Urrutia, Angel Zubizarreta, Castro, Enrique Agirre, Herrero, Rafael Uriarte, Ramon Rivas?, ??, Jesus Cea, Moragues, Alfonso Zarraga, Rafael Padro, Roman Cestona, ??, Jose M<sup>a</sup> Basozabal, Juan Olaskoaga, Roman Inchaurtiarta, Agustin Zubizarreta, Tomas Larrinaga, Jose R. Gerediaga, Tomas Larrinaga, Juan Jose Rivas?, Luis Rodriguez.

**Emakumezkoak:** Billalabeitia, Gomez, ??, M<sup>a</sup> Teresa Zugasti, Carmen Bengoetxea, Begoña Zubiaur, Begoña Larrea, Nieves Porset, M<sup>a</sup> Angeles Llorente, Ana M<sup>a</sup> Gutierrez, Carmen Turrez, M<sup>a</sup> Cruz Bretos, M<sup>a</sup> Isabel Igual, Josefina Zubizarreta, Miren Inchausti, Urrutia, Yoli Hormaza, M<sup>a</sup> Luz Porset, Maria Otazua, Juana M<sup>a</sup> Cajigas, Abilia Diaz, ??, Juana San Anton, ??, Aintzane Sorozabal, ??, Estibarlanda.

**Zuzendaria:** Angel Uriguen (apaiza)

Oharra: aurreko aleko argazkian izen bi falta dira. Luis Mari Bilbao eta Aretxabaleta (eskuaren atzean).

asmatu eta irabazi > lagun birentzako bazkaria



Nor da?

- Baga, biga, higa...
- Hegoak ebaki banizkio...
- Gu sortu ginen enbor beretik...

> Aurrekoaren erantzuna: Maddalen Arzallus

> Irabazlea: **Gotzone Olaeta\***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**  
Telf. erreserbak: 94 460 64 13

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean lagun birentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria

JOSEBA OLAGARAI > EITBko kazetaria

# “Nire buruarekin hobeto sentitzeko aukera eman dit Bilbok”

Testua: Maitane Nerekan



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Ni neu.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Nire amona; eredu bikaina izan da niretzat.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

*Psicosis* (Alfred Hitchcock). Nire pelikula faboritoa da eta Anthony Perkinsen papera gustura egingo nuke.

**Orain zarena izango ez bazina zertan nahi zenuke jardun?**

Bertsolaritzan ariko nintzateke.

**Ohitura txarren bat badaukazu?**

Asko. Despistatu hutsa naiz, dena galtzen dut eta desordenatu hutsa naiz.

**Aitor dezakezun bizio bat?**

Gominolak.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik badago?**

Bidaia asko egin ditut, baina ez nuke bakar bat ere errepikatuko. Nahi nituzke leku berriak ezagutu, nahiz eta denek eman didaten arrazoi bat berriz ere bueltatzeko.

**Irakurri duzun azken liburua?**

Joseba Sarrionandiaren *Gau ilunekoak*. Berezia da, polita.

**Ikusi duzun azken filma?**

*Moulin Rouge*. Aspaldi ikusi nahi nuen filma zen eta ikaragarri gustatu zait. Gainera protagonista, Nikole Kidman, nire aktore faboritoa da.

**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**

Hitz egin ondoren ia edozein gauza uler dezakedala uste dut.

**Zure ametsetako bat?**

Bere buruaz harro dagoen pertsona izatea.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Bilbo (Bizkaia). Bizimodu berria, lagunarte berria eta nire buruarekin hobeki sentitzeko aukera eman dit Bilbok. o

**LABURREAN**— Gaztea izan arren (24 urte ditu) esperientzia handiko kazetaria da Joseba Olagarai etxalartarra (Nafarroa). *Jaiak 2004* saioan hasi zen EITBn eta ordutik lan eta lan ibili da kamara aurrean, zein atzean. Gehienek ETB1eko haurrentzako *Betizu* saiotik ezagutuko duzue, nahiz eta bi urte pasa diren utzi zuenetik. Azken urtean, Andoni Aizpuruk zuzentzen duen *Horrelakoa da bizitza* saioan ikusi dugu erreportajeak egiten. Orain, kameraren beste aldera pasa da eta *eitb.com* interneteko atarian erredaktore lanetan dabil; kamera aurreko, zein atzeko lana gustuko badu ere, pertsonaia publikoa izatea zaila dela aitortu digu Olagarai.

**OKINDEGIAN ere euskaraz**

- Baguettea / Baguette
- Ogi txikia / Barra pequeña
- Baserriko ogia / Pan de leña
- Moldeko ogia / Pan de molde
- Ogi handia / Barra grande
- Ogi-irin integrala / Harina de trigo integral
- Zekale-ogia / Pan de centeno
- Ogi-barra zerealduna / Pan de cereales barra
- Moldeko ogi integrala / Pan de molde integral
- Ogi-irina / Harina de trigo
- Ogi-sojaduna / Pan de soja
- Vienako ogia / Pan de Viena
- Erromatar txikia / Romanito
- Txapata / Chapata
- Ogi espainola / Pan español
- Ogi gatzgabea / Pan sin sal
- Ogi integral haziduna / Pan integral de semillas
- Ogi sesamoduna / Pan de sésamo
- Ogi birrindua / Pan rallado
- Opilak / Bollos

Logos: Getxo Euskara Zerbitzua, EUSKARA BIZI



**Getxo**  
UDALA • AYUNTAMIENTO  
Euskara zerbitzua



**EUSKARA BIZI**

# euskarazko produktuen katalogoa

2008-09

## KATALOGOA GETXOKO SALTOKIETAN

Katalogoan agertzen diren produktuak Getxoko saltoki hauetan aurki ditzakezue.

BEHIN BATEAN  
BOLIBAR ELORDUI LIBURUDENDA  
COSAS  
ITXAS-IKUS  
LA GUSANA LIBURUDENDA  
LIBRERÍA-ESTANCO SAN JOSE  
LIBRERÍA GOBELAURRE  
LIBRERÍA ITZIAR

LIBRERÍA LAS ACACIAS  
LIBRERÍA NADAL  
LIBROS PAPELERIA  
LIBRERÍA MAYOR 29  
NORAY LIBURUDENDA  
ORIXA LIBURUDENDA  
ZUGATZARTE LIBURUDENDA

[www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)  
[www.getxo.net](http://www.getxo.net)